DOHAN ZEURE ETXERAKO

1990ko Abendua/21. Alea

EIBARKO UDALA EUSKARA BATZORDEA


Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailaren babesarekin

... eta kitto!

6.000 kontsulta sexualitatearen gainean Haur-Ama Zentruan. Gehienak 30 urtetik azpiko emakumeek eginak

Antikontzepzioa da zerbitzu eskatuena herriko sexologi kontsulta publikoan

Bidebarrieta kalean, San Andres eskola ondoan kokaturiko zentru honetan, Eibar eta Soraluzeko jendeen arazo sexualak azertuz gain, bakoitzari dagokion soluzio egokiena ematen saiatzen dira "sexualitateari buruz hitzegiterakoan ez bait daiteke generalizatu". Aurten 5 urte betetzen dira emakume hauek lanean hasi zirenetik, eta Maiatzetik Osakidetza barnean aurkitzen dira. Bestalde, jendearen jarrerari begira gero eta "naturalagoa" bezala jotzen dute, "gizonen kopurua gehitzen doan neurrian, nahiz eta emakumezkoekin konparatuz urria izan oraindik"



Kontsulta datuetan azaltzen denez, atal garrantzitsuena, alde handiz gainera, antikontzepziozko jarraipenezko bisitari dagokio (% 43). Apartadu honetan eta adinari begiratuz, 25etik 29 urtetara doan taldea da inportanteena (% 36), 20 urtetik 24era doana (% 28) jarraitzen diolarik. 30etik 34era arteko emakumezkoak % 12a dira; ia kopuru berbera 19 urtetik beherakoak.

Antikontzepziozko bisitaren atzetik jarraipenezko beste batzurekin aurkitzen gara (hauek % 24a). Hemen sartzen dira beste motibo ugari: esate baterako, haurdunaldia nahita geratzea, esterilitatea, gizarte arazoak, sexu aldetikakoak, patologiak eta abar. Atal honetan, kantitate handiena eta aldi berean kilikolozkoena, 24 urtetik beherakoa da (% 36). 25 urtetik gora estabilizatu egiten da (% 14).

Bi hauen atzetik, aurreneko bisitak (% 14) eta urteroko ikusketak edo rebisioak (% 13) aurki ditzakegu. Aurreneko bisitetan, 29 urtetatik beherakoetan (% 65a) eskaera iraunkor bat ikusten da.

Azkenik, eta kontsulta kopuruari dagokionez haurdunaldiko kontrolak daude (% 4,47).

Opor/garaiak -Aste Santua, Sanjuanak, Udako oporrak, Gabonak- pasa eta gero, handik hilabete pare batera kontsulta eskaerak ugaldu/egiten dira. Festetan gertatutako deskuidoak ote?

■ % 20' 33 hemeretzi urte baino gazteagoak

Euskal komunitatean sexu harremanen hasiera, nahiz eta Estatuko beste komunitateetan -leku askotan 15 urterekin- baino beranduago eman, gero eta goizago suertatzen da, oraindik dauden aldeak denboraren poderioz murriztuz.

Zentrura gazte jendea normalki joaten da; batzutan sustoa izanda ere. "Besteengana zabaltzeko eskolak askoz ere indar handiagoz funtzionatzen du; lagun taldea baino erabiliagoa da bide hau, ikasten ari diren artean behintzat", Lidia Goñik, gizarte laguntzaileak, azaltzen digunez.

Antisorgailuen erabiltzeari buruz talde hau, gazteena hain zuzen, 19 urtetik beherakoa da gutxien usatzen dituena (% 45); 45 urtetik gorakoen artean % 52' 7ak erabiltzen ditu eta erdian dagoen taldeak -19 urtetik 45ragehien (% 64a).

Preserbatiboa da gehien erabiltzen dena gaztetxo eta 45 urtetik gorakoen arteko harrematen. Aldiz, erdiko taldeak -19 urtetik 45era- DIUa eta pildora ditu erabilienak. Gauza berezi bezala azpimarratu behar DIUaren erabilpenaren gorakada, kobratzen ez denetik.

Kontsultara datorren jendearen artean kopuru inportantea da inoiz umerik izan ez duenena. Basektomiak gehikuntza izan du eta tronpak lotzearen portzentaia deldirik dago; biak, dena den, gutxienezko puntuetan ematen dira. Bide hauek erabiltzeko, atzeraezinezko bideak direnez, bikotearen presentzia eskatzen da.

Orain arte egindako estudioetatik ondorio batzu atera daitezke: alde batetik, sexu bidez hartutako gaixotasunen indizea baxua dela "ez ez daudelako, detektatzen ez direlako baizik"; bestetik, haurdunaldia nahita geratzearen eskariaren gutximena. Honen zergatia abortoaren despenalizazio partzialean eta zentruen akreditazioan datza. Gainera, jeitsi dira ere ginekologi eta bularrezko patologiak, nahiz eta bataz besteko adinaren jeitsieran izan honek bere kausa. "Ala eta guztiz, ikuspena ezin da baikorregia izan", Lidiak dionez.

■ Sexua hazkunde pertsonalakin lotu behar da

"Polemika alde batera utzi behar da. Sexua bere osotasunean bizi eta ez arazo bezala bakarrik. Balitekeena da problemarik ez egotea, baina gure kapazitateak gutxituta daude. Jende asko da komikiak bakarrik irakurtzen dituena; beste askok, ordea, El Quijote irakurtzen dute. Ba, sexuan asko eta asko komikian geratzen dira. Orduan gure posibilitateak ez dira betetzen, saiatu beharko genuke. Azken finean, komunikazio arazo bat sortzen dugu", mintzatzen zaigu Elizabeth Eguren, Zentruko sexoloa.

Harremanetarako zailtasun horrek, sexu eta amodiozko komunikazioan bere eragina du. Beste kultura batzurekin konparatuz, andaluza edo Castillakoarekin, hemengo maila eskasagoa da.

Kontsultan planteatzen diren arazo nagusiak inpotentzia eta denbora-aurretiko eyakulazioa dira gizonengan eta harremanetarako desio falta eta anorgasmia emakumeengan.

"Gaur egungo hezkuntza sexualak" dio E. Egurenek, "baditu bere akatsak: informazio gehiago dago, baina deformea bada konfliktoak sortzen ditu".

■ Ekintzak: informazioa ematetik laguntza prestatzera

Zentruko/Zerbitzuak jende guztiari daude zuzenduak, sexuari dagozkionak batez ere; zerbitzu ginekologikoa eta famili planifikazioarena, fertilitate garaian daudenei (Eibarren, azken zentsoaren arabera, 9.356 emakume dira egoera honetan).

Ekintzen artean hauek aipa ditzakegu, garrantzitsuenen artean: informazio arloan, solasaldiak zerbitzu erabiltzaileentzat eta egun berezia gazteentzat (ostiraletan, 11.tik 1.ra); asistentzia arloan, bularretako minbiziaren prebentzioa, abortoa izan eta geroko edo erditzeosteko ikusketak, haurdunaldiaren kontrola, antisorgailuaren prestakuntza eta kontrola, haurdunaldia nahita geratzearen informazioa eta atzeraezinezko antisorgailu metodoarena ere, besteak beste.

KONTSULTAK

OROKORRAK

	Portzentaia
Antikontzepziozko jarraitzekoak	% 43,72
Beste batzu jarraitzekoak	% 24, 21
Aurreneko bisitak	% 14, 56
Urteroko rebisioak	% 13, 02
Haurdunaldi kontrolak	% 4, 47

KONTRAZEPZIOA

ADINA	Portzentaia
- 19	% 12,76
20 - 24	% 28,43
25 - 29	% 36,55
30 - 34	% 12,74
35 - 39	% 4,90
40 - 44	% 3,92
45	% 1,09

ITURRI ONETIK

Eduardo Artamendi



Eibartarra. 45 urte. Arkitektura ikasketak Madrilen burutuak. Lankide Aurrezkiren etxebizitzaren kooperatiba proiektuan parte hartu eta gero, 4 urte egin zituen Eibarko Udaletxeko arkitekto bezala, Arau Ordezkatzaileak lantzen. Erderaz "Normas Subsidiarias"en sortzaile honek urte batzu badaramatza Donostiko Arkitektura Eskolan klaseak ematen. Orain bertan tesi doktorala ari da burutzen.

Asko ari da hitzegiten azken urteotan Eibarren etorkizuna zerbitzu-hiria izatearekin lotuta dagoela. Zein da zure eritzia?

Lehenengo esan behar dut ideia hori, Eibar hiriburua izatearena hain zuzen, ez dela berria. Planeamenduen berrikuspenean hartu genuen ideia da. Asmo edo ideia horrek esan nahi du Eibarko ekonomiak aldaketak izan behar dituela eta Urbanismoak ere bai, noski. Eibarrek baditu hiriburu komarkala bihurtzeko baldintzak, Bilbo eta Donosti artean bait dago, erdian gehiago esateko, eta gune horretan dauden herrietatik handiena da. Beste alde batetik, ez dago Eibarren tokirik lehengo garapen industriala aurrera eroateko.

Eibar, zerbitzu hiriburua izateko, ez da konformatu behar dendak edukitzearekin bakarrik; inportanteagoa da beste zerbitzu ekonomiko eta profesional batzurekin kontatzea: kultura arloan, enpresa edota heziketa mailan eta atal profesional askotan.

Honen ondorioz, Eibarren bizi den jendearen maila ekonomikoa eta kulturala goratuko litzateke. Hori kontutan hartuz, pentsatu behar da ez duela merezi zerbitzu hiriburua bihurtzea, zerbitzu horiek eskeini behar dutenek Eibartik kanpo bizi behar badute; bertan bizi beharko dira, bestela ez du mereziko ezer egiteak. Haiengan pentsatuz eta eibartar guztiengan, Eibarko baldintza urbanistikoak hobetu behar dira derrigorrez: gune libreak, paseatzeko lekuak, jendearekin lasai ibiltzeko, parkeak, dibertitzeko tokiak, kirola eta kultura egiteko...

Gauza guzti horiek baldin badaude, Eibar bizitzeko merezi duen leku bihurtzen bada, orduan bai merezi izango duela zerbitzu hiriburu bat izateko halegina egitea.

Oharra

Honekin 21. "...eta Kitto!" duzu. Gauzak eginez hobetu behar direnez, hau buzoian jaso duzu, berdin hemendik aurrekoak. Dena dela, helbidea zuzendu edo euskaldun familiaren batean jasotzen ez bada dei 11 80 64ra eta okerrak zuzentzen saiatuko gara.

Mila esker orain arte laguntza haundia emanez aldizkari hau banatzen eta dibulgatzen lagundu diguten kioskeroei.

BULEGO MATERIALAK ETA ALTZARIAK

KOMERTZIALA

ETESA

Bidebarrieta, 66 - Post. Kutxa 428 - Tfnoa. (943) 121973/74 - Fax:(943) 127068
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

Gipuzkoako Industri Bankoa

bankoa

INTERES HANDIKO KONTU KORRENTEAK
ERRENTAGARRITASUN PAREGABEA

ZULOAGATARREN, 7 TEL: 11 39 40

... eta gainera

- Gazte gara Gazte
- Eibarko San Andresak



Eibarko kultura eta turismoaren gida

Abenduaren erdikaldean kaleratuko du.

Gida horrekin, egunero dauden eskaera eta galderei erantzuten ahaleginduko gara jende asko eta asko zuzentzen bait da Udalarengana historia mailako informazioa, kultura arlokoa edo turistikoa jaso nahian.

Gida, ulerterraza izango da, era zuzenean idatzia, beraz Eibarko Ikastetxeetako haurrek baliabide egokia izango dute hiriari buruzko lanen bat egin behar dutenerako. Nagusiek ere, aukera edarra izango dute hiriari buruzko zehaztasunak hobekiago ezagutzeko, historiaren alderdi ezezagunak kausitzeko, arte mailan dagoenaren berri izateko...

Nola ez! bisitariak ez ditugu ahantzi, eta non jan, non lo egin eta zein garraiobide dauzkaten azaltzen ahalegindu gara.

Idatziak ulerterrazak eta laburrak izango dira baina daturik aipagarrienak bazter batera utzi gabe.

10.000 ale emango dira argitara. 5.000 euskeraz eta 5.000 erderaz.

Era berean, abenduan baita, Eibarko 10.000 PLANU KALEIZENDEGIAREKIN banatuko ditugu.

Dohakoak dira biak.

Gida eta Planoa Informazio Bulegoak berak egin ditu Kultura Sailak hala eskatu ziolako.

Europa Azul: Itsasoaren aldizkaria

Hau da hau. Non eta Eibarren sortu behar horrelako aldizkari bat! Benetan harrigarria. Ia urik gabeko presa bat daukagunean, nondik eta itsaso zabalaren berri ematen digun aldizkaria.



Kalean dagoen aldizkaria 4.ena da, iraila eta urriarena, bi hilabetean behin kaleratzen bait da. Barruko informazioan aipatzen denez 10.000 aleak gainditzea lortu dute eta benetazko aitzindariak suertatzen ari dira itsasoko eta arrantzale sektore barnean.

Oraingo zenbakian Galizako Xuntaren Lehendakari izandakoari, García Laxe hain zuzen, elkarrizketa bat egiten zaio. Persiako golkoan ematen ari den dakigun krisiaren ondorengo eraginak Europako arrantzale flota barruan da beste gai nagusienetako bat. Galizan izango den itsakiaren denboraldiari buruzko xehetasunak ere ematen dira, bertan mugitzen den dirua kontutan harturik, 20.000 milioi pezeta guztira. Euskal Herriari begira hiru gai dira inportanteenak: bata, hemengo nabierak Espainia guztiko herena kontrolatuko duena; bigarrena, Euskal komunitatean sortuko den lehenengo kirol portuari buruzkoa, Hondarribian kreatu behar dutena eta, azkenik, Mutrikuko azkeneko anzueleroarena, Ingurugiroko gai bezala, azken egunotan Mediterraneoan gertatutako gizurdeen heriotzak eta bertako kutsaduraren arteko erlazioa azaltzen da. Eritzi artikulu moduan Garaikoetxeak sinatutakoa ere aurki dezakegu. Azkenik, gastronomia horrietan, legatza gure sukaldeetan.

IRAKURLEAREN TXOKOA

Kaixo lagunok:

Zuen aldizkariaren irakurle bat naiz eta oraingo honetan kexa bat aurkeztera nator. "Gazte gara gazte" atalean kultur ekintzak agertzen zaizkigu: liburuak lehiaketak eta bestelakoak. Baina normalean ez da agertzen zineari buruzko aipamenik... Jakina! nola agertuko da ba, Eibarren zine bakarra dugu eta...! Beno Amañako ere hor dago, baina zine hortako ikusleen gehiengoa haurrak dira. Orain dela urte batzu Eibarren bost zinetoki zueden. Lau desagertu egin dira. Lau horietatik bik bere destinoa izan dute, ona ala txarra, hori bakoitzaren iritziaren araberan dago, baina beste bik hor jarraitzen dute itxita eta kitto. Zergaitik...? Eibarko gazteak kondenatuta gaude zine bakar batetara joatea eta nahi eta nahiez botatzen duten filme bakar hori ikusteko aukera daukagu. Normalean ekartzen dituzten filmeak nahiko txarrak izaten dira eta 375 pezta ordaintzea filme hori ikusteko, ba zer esango nuke... batzuk (askok) ez gaude prest, telebistan dohain ikusteko posibilitatea daukagu eta azken finean zinetokian botatzen dituztenak eta telebistan botatzen dituztenak oso antzerakoak dira.

Mesedez, ea nori dagokion eta ea kontutan hartzen duen.

Eibarko gazteriak zinetoki gehiago nahi ditu!!!

Fellini gaztea



Sariketa

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno hori hala bada eta AYERBEk oparituko duen liburua irabazi nahi baduzu bidal ezazu eskutitz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara zeure datuak eta telefonoa emanez!!!

Eibarko Udala
Euskera zerbitzua "
Eta Kitto Sariketa"

20.Aleko sariketaren erantzuna "Galeriasko Plaza" zen. SARITUA: Idoia Bolinaga Urkizu Pasealekuan bizi dena.Hurrengo Sariketarako Abenduaren 15a baino lehen bidali behar dira erantzunak. SORTE ON!!!

OHARRA: Oraingoan ere oso karta gutxi jaso dira. Argazkia ezagunegia zelako ote da? Ikastetxe, Elkarte, Euskaltegi... kook Animatu zaitezte. Karta asko jasotzeko gogoa dugu eta!!!

AYERBE LIBURUDENDA

Liburu salduenak azaroan

EUSKERAZ

Eibarko Argazkiak.
Euli zomorroa. Asun Balzola
Oinarriko Hiztegia. Adorez
Hamabost egun Urgainen. Jose A. Loidi

ERDERAZ

El amante bilingüe. Juan Marsé
El bastardo. Tom Sharpe
El clan del oso cavernero. Jean M. Auel
Las edades de Lulú. Almudena Grandes

ARGAZKI NOTIZIA

Olentzeroaren atarian



Huelvatik etorritako andaluzak ditugu berriro gure artean. Eta hor ibiliko dira, eskilarak igo, eskilarak jeitsi, kableak moztu, kableak lotu. Erdiko kaleak izango dira zoriontsuak, Gabonak merkatuari loturik daudenez. Noizbehinka baliteke gertutik heurek bakarrik duten ahots txispagarri horrek geuri buelta ematera behartzea; orduan konturatuko gara Gabonaren hurbiltasunaz. Heurek, bere aldetik, lanari eutsiko diote, horretarako etorri direlako. Eta ailegatuko da egunen bat, gauarekin batera kolorezko argiak piztuko direla. Orduan ezingo dugu ahaztu andaluzakin batera urtea ere joan zaigula.





Eibar modan

Hauteskunde kanpainak haundikeriak, xelebrekeriak eta inusentekeriak botatzeko garai aproposak direla guztiok dakigu. Itxuraz, edozein gauza esateko bula daukate politikoek kanpainak irauten duen neurrian. Herriak, bonbaketa propagandistikoa pasatu eta gero, erraz ahazten ditu esandako guztiak, baita gauzarik sinesgaitzenak ere. Politikarien mesederako, jakina.

Dena den, gure herrian, azken hauteskunde kanpainaren aitzakiz, gauza mamitsu bat esan zuten gehiengo munizipala osatzen duten alderdien ordezkariek: "gure ustez, Eibar erabat modan jarri da gure jestioaren ondorioz". Hauteskundeak izan eta gero, ez da gehiago deskubrimendu hori aipatu. Herri guztiak, politikoek barne, ahaztu egin du rebelazioa, antza.

Ez dut nahi nere burua azti edo adibinotzat jotzea, ez, baina modan-jartze horren indizioak baziren aspaldidanik. Azkenego boladan, gure Eibar hau definitzen dituen zenbait ezaugarri eta joera igartzen dira nonahi, munduan zehar.

Esate baterako, mundu guztiko hiriburuetan modan jarri den azken kirolak tradizio luze bat du gure herrian; trafiko ataskoak. Gidarien iaiotasuna, pazientzia eta odol-hotza frogan jartzen duen kirol honek, praktikatzaile ezin hobeak ditu gure herrian, bigarren eta baita hirugarren filan aparkatzera heltzen delarik bere gaitasuna. Aditun ustetan, eibartar kaletan gidatzea Paris-Dakar ralian parte hartzea baino gogorragoa da. Aurki, nazioarteko rali urbano bat antolatuko da gure herrian.

Beste moda bat, herri guztia hondatzea etengabeko obren bitartez dugu. Bartzelona-92aren aitzakiz, Katalunia erdia hankaz gora jarri omen dute moda berri hau jarraitzeko. Hemen badugu zer esanik ere. Arlo honetan munduko txapeldunak garela esatera ausartuko nintzateke, gure herrian kale berberak bi edo hiru aldiz zulatzen bait dira urte berean, perfekzioaren bila edo. Egiptoko faraoiek ere ez zuten gure pareko arkitekto eta injenierorik.

Bi adibide hauen bitartez, argi gertu da eibarko herriaren karakteristikak modan jartzen ari direla mundu osoaren zehar. Ondorioak nabaritzen hasiak dira. Jende asko dator modan jarri den gure herri honetara, lehen Monako eta Saint-Tropez aldera jotzen zuten bezala. Esate baterako, Eibarko futbol taldera iugoslabiar jokalari bat etorri zaigu, hain modan dagoen herri bateko taldea plataforma propagandistiko izugarria delako. Kirolzaleen artean zabaltzen diren txutxumutxuek diotenez, hurrengoak Van Basten eta Maradona izango dira. Zergatik ez, ba? Ez ahal dago modan gure Eibar? Dena den, modaren arazo hau ez da gehiegikeri bat bihurtu behar. Nahiz eta gure herria modan egon "Jostunen eguna" -"disenatzaileen eguna" bihurtzea gehiegi iruditzen zait, nahiz eta batzuek aldaketa hau proposatu. Gauzak ez dira bere onetik atera behar.

Munizipalek 2.000 fitxa inguru dituzte artxiboetan

Delitoak zeharo gutxitu dira azken urteetan eibarren

Eibarko udaltzaingoak polizia judizialari dagokion ardura hartu zuenetik zazpi urte igaro dira. Kuantitatiboki, emaitzak ezin hobeak izan dira; 1983an Eibarko 90 etxe atrakatuak izan ba ziren, aurten bi asalto besterik ez dira jasan. Udaltzaingoaren buru den José Miguel Calleren ustez "egoera sozialaren hobekuntzak ikaragarri lagundu digu gure betebeharretan". Orain dela zazpi urte 200 heroinazale zentsaturik bazeuden, gaur egun Polizia Munizipalak hogeiren bat ditu bere artxiboetan. "Gure arazorik haundienak alkoholaren aldetik gaur egun", dio J.M.Callek.

Polizia judizialari dagokion ardura hartzeko erabakia ez zen erraza izan, baina Udaltzainen artean hartu zen. 1980ko hamarkadaren hasieran, Eibarko egoera poliziala tamalgarria zen: beste talde polizialak ez zuten ardurarik hartzen, indarkeriaren beldurrez; beraz, Udaltzainek bete behar izan zuten hutsune hori.

Hutsune galanta, gainera. Garai horretan, 200 heroinazale zentsaturik zeuden Eibarren, eta udatan etxe asko, hutsik zeudela baliatuz, atrakatuak izaten ziren. Eibar ez zen, ezta gutxiago ere, Harlem bat, baina arazo larriak zituen hala ere.

Gaur egun, egoera guztiz aldatu da. Drogazaleen kopurua asko murriztu da, Udaltzaingoaren esanetan hogeiren bat izango dira, eta ondorioz, kriminalitatea jeitsi egin da. 1981eko abuztuan 90 piso izan baziren asaltatuak gure herrian, aurten bat bakarrik izan da lapurtua. Zifrak adierazgarriak dira benetan.


2.000 fitxatik gora

Lana gogorra izan da, Udaltzaingoaren buruen ustetan. "Hutsetik hasi ginen, ia inolako esperientziarik gabe, baina hutsune hori bete nahirik jardun ginen" -dio J.M. Callek, Udaltzaingoaren buruak- "Horretarako, artxiboa prestatu genuen. Hasieran oso murritza bazen ere, gaur egun 2.000 fitxatik gora bildu ditugu. Horrelako artxibo bat izateak gure lana ikaragarri errazten du".

Gazteizko udaltzaingoa izan zen, Euskal-Herri mailan, polizia judizialaren konpetentziak hartu zituen lehen erakunde lokala, baina Eibarko udaltzaingoa bere kontura, hots, beste talde polizialen laguntzarik gabe, jardun zen izan genuen. Beraz, arlo honetan behintzat, pionero batzuk izan dira gure munizipalak. Parametro bezala jartzeko, Donostiako Udaltzaingoak orain arte ez ditu polizia judizialaren konpetentzia hauek hartu.

Esker txarreko lana

Udaltzainen lana polemikoa da, itxuraz. Eibar moduko herri batean trafikoaren ardura izateak iskanbila ugari dakar, zalantzarik gabe. "Multak besterik ez dute jartzen" edota "Alper alenak" sarri entzun ditugun esaerak dira. Udaltzainen ustetan, merezi gabekoak. "Gure ogibide hau, ezkertxarreko lan bat da, bai" - dio J.M. Callek- "Beti herri guztiaren ahoetan gaude, baina askotan adinduak betetzen ditugu soilik. Esate baterako, gauez lan egiten duten tabernekin polemika izan dugu orain dela gutxi, ordutegiaren arazoarengatik, baina guk ez ditugu asmatu ordutegi hauek, legeak baizik".




J. M. Calle: "Alkoholak sortzen dizkigu arazorik haundienak"

"Gazte plataforma" izeneko talde batekin ere esamesak izan ziren, baina udaltzainen buruak ez dio garrantzi haundirik ematen. "Talde oso txiki bat zen, eta Eibarko gazteak 7.000 mila inguru dira, ez zazpi edo zortzi. Gure lanean ohituta gaude horrelako polemikak izaten. Gainera, herri honetan guztiok ezagutzen gara eta badakigu zer dagoen talde hauen atzetik".

"Tabernen polemika honekin bukatzeko asmoz" - jarraitzen J.M. Callek- "gu ez garela herritarren gurasoak argi eta garbi utzi nahi dut. Baina, tamalez edo zorionez, alkohola edateko ordutegi eta sasoi batzuk errespatu behar dira. Hori da gure lana, alegia". Nahiz eta jende askok bestelakoa pentsatu, ez dira "drogak", heroina argi esateko, poliziaren kezkarik haundien, alkohola baizik. "Azken urteetan, heroinazaleen kopurua zeharo murriztu da, zorionez. Horregatik, alkoholak sortzen dizkigu gaur egun problemarik gogorrenak. Kontutan hartu behar dugu, Eibarren izandako azken laupabost homizidioak alkoholaren eraginez etorri direla".

Ertzantzaren peskiza

Aurki, Ertzantzaren komisaldegi bat eratuko da gure herrian. Horrela, zazpi urtez iraun duen "interregno" hau bukatuko da, Udaltzaingoak polizia judizialaren konpetentziak Ertzaintzaren esku utziko dituelarik. Dena den, gauzak ez daude batere argi, nahiz eta bi hileren buruan Ertzaintzaren komisaldegia martxan egon. Gaur arte, beti eibarko Udaltzaingoaren esanetan, ez da lortu akordio zehatzik konpetentziak banatzeko bi erakundeen artean. Nahiz eta aditzera eman Ertzaintzak trafikoa zuzenduko zuela, gauzak zalantzan daude oraindik. "Ertzaintzak esango du zenbateko lana hartzeko prest dagoen, eta guk beste guztia jaso beharko dugu", bukatzen du J.M. Callek. Beraz, lanak gogorra izaten jarraituko du Udaltzaingoaren 32 langileentzat.



"Gure "coordonnateur"rak, Fernandok, 40 urte betetzen ditu abenduaren 7an ¡¡¡ ZORIONAK. (Primizia mundiala irakurle maitea. Abenduan "kitto"rik jasotzen ez baduzu "desagertutako erredaktoreen" aldeko elkartea sortu mesedez... Delitua delako zuzendariak ezer jakin gabe horrelako notiziak kaleratzea)

FIAT
EIBAR
BITOR SARASKETA, 7
12 10 00
12 10 19
HOGEI, S.A.

Alfredo ELORZA
ORTOPEDIA
TRATAMENDU EGOKIAK
ZEZENBIDE, 6 (EIBAR) Tel: 11 00 70

KIROL PARTIZIPATIBOA



Parapentea, Frantzian sortutako kirola da, eta gutxinaka, gure lurraldean indar handiarekin finkatu da. Kirol honetaz hitzegiteko, 28 urtetako Eibartar administratibo batekin, Iñigo Gerrarekin hitzegiten egon gara.

Kirol berri bat gure artean

Parapentea, sentsazio paregabea

Parapentea egiten duten kirolari gehienak, mendizaleak dira, disziplina honetan aritzeko, hainbat mendi igo behar direlako. Zergatik parapentea? Gure izaera menturazaleagatik izan daiteke, edote, bi kirol hauek, bai mendira igotzea eta bai parapentea, kirol osagarriak direlako.

■ Sentsazio eta arriskuaren artean

Kirol honi buruz, hainbat artikulu idatzi dira; batzuk, oso kirol erraza dela aipatzen dute, sentsazio eta ikusmen paregabeak jasotzen direlarik. Besteak ordea, azken hilabete hauetan gertatu diren istripuak azpimarratzen dituzte eta parapentearen segurtasuna dudan jartzen hasiak dira. Parapentea, kirol segurua da, serioa, baina bere erregelen jarraipen zorrotza eskatzen du. Parapentea, kirol eder eta suhargarria da, eta horregatik oso arriskutsua bihurtu daiteke.

■ Parapente eskolen seriotasuna

Kirol honen lehen erregela eta garrantzitsuena, eskola batetik pasatzea da. Parapentariak, arau batzuk jarraitu behar dituen bezala, eskolak ere, bereak bete behar ditu. Iñigok, parapente ikasteko, Bidasoa Delta parapente eskolan klaseak jasotzen ditu "parapentearen ikasketa, bi partetan zatitzen da; lehenengoa, parapentean hasera bat. Bigarren zatia, perfekzionamendua. Bi hauek egin gabe ezin duzu salto egin. Klase hauek, teoriko eta praktikoak dira. Biak oso garrantzitsuak dira, bai salto egiteko, eta bai klima ezagutzeko".

Esan beharra dago, eskolak materiala eskaintzen duela eta hor bertan, ikasleak federatu egiten direla.

■ Arriskuak ezabatzea

Aipatu den moduan, parapentea kirol arriskutsuaa izatera hel daiteke hurrengo hiru puntu hauek kontutan hartzen ez baditugu. "Aireatzeko orduan, oso garrantzitsua da, haizea kontran egotea, bestela arazo asko edukiko ditugu. Haizea kontran eduki ezkero parapentea uztutzen dugu. Beste puntu garrantzitsu bat, haizearen habiadura da. Habiadura hau, ezin da izan 35 Km ordukoa baino bizkorragoa eta gainera, ez dadila egon zartatua. Hau da, ezin da egon lehenengo 25 Km orduko habiadura eta momentuan aldatzea 30 Km ordutako habiadura aldatzea. Azkenengo puntu garrantzitsuena lurreratzean dator. Lurreratzerakoan ere, haizea kontra egon behar da, dituen freno batzuen bidez parapentea isten dugunean poliki lurreratzeko, bestela, atzetik badatorkigu, arazoak eduki ditzakegu, parapenteak habiadura gehiago hartuko du eta.

■ Parapentea Eibarren

Ez daukagu Eibarren parapentista asko. Parapentari izatea oso garestia delako, bai ikasteak 60.000 pezeta balio duelarik; eta parapente bera, merkeena 230.000 pezeta kostatzen delako.

Beraz, ez daukagu aukera asko parapentean aritzeko inolako laguntzarik jasotzen ez badugu.

LITERATURA

Egunero espe



Zure zai naukazu oraindik josita itsaso honetatik besoak altsatzen saiatzen nabil. Denbora asko daramazu hemendik agertu gabe. Hainbat eta hainbat lekutara heldu zara... Batzutan gizonen laguntzaz, baina gehienetan zure hegaldia ostopatzera heldu dira. Askotan desegin dute zure zeregina; beharbada, zure alde lan egiten dugunok, jendearen tartean galtzen garalako. Gure besoak txikiak gelditzen zaizkigu iñora heltzeko.

Ez dakit non aurkituko zaren lanean orain. Ez dut esango nire herriko arazoa munduko latzena denik, ezta premiazkoena ere. Badaukat beste batzuren berri. Nire ustez, hoiek konpontzeko denen laguntza beharko zenuke. Zuk bakarrik..." ez, ez da konfidantzarik ez dudala. Badakit boteretsua zarena, baina denon bultzadatxoa beharko duzu. Pertsona guztien burmuinetan alde baikor bat ba dago, eta alde hori berpiztu (bai berpiztu, zeren inoiz piztua egon da) beharko dugu. Lan latza bai, baina ez dugu atzera egingo. Hori ez. Beti aurrera!

«BRANKA», ELKAR-EN L

DURANGOKO Azokarako liburu b argitaldariak: «Branka». Gazteek osatuko da. joseba Sarrionandia, eta Pam Lyons idazleen tituloak iz

Zure bulegoak eskakizunez betea egon behar duela suposatzen dut. Batzutan sinbolikoki bakarrik hartzen zaituzte kontutan. Hor gelditzen da guztia, sinbolo huts batetan. Baina horren atzean, gizonen besoak elkartuko dituen

■ BERAK

Ikerketa etnologikoari buruzko beka. Jose Miguel Barandiaran fundazioak egiten du dei. Lan hori betetzeko sortutako lan taldeak edota horretan interesaturik dauden pertsonak izango dira eskatzaileak. Edozein kasutan, lehentasuna emango zaie euskaldun izan zein Euskal-Herrian bizi direnek aurkitzen dituzten lanei. Gaia ikerketa etnologikoa da. Bi urteko iraupena izango du. 2.400.000 pta emango dira. 1990eko Abenduaren 31era arte izango da epea. Argibideak Jose Miguel de Barandiaran fundazioan aurkiditz kezue. Donostia. Telefonoa ha delarik: (943) 42 51 11.
"Angel Fabregues" deituriko bek Fundació Josep Sans-ek egiten d dei. Denbora libreari buruzko lana egiteko. 200.000 pta emango dir 1990eko Abenduaren 15ean amai zen da eskabide-epea. Argibidea Fundació Josep Sans-en aurkituk dituzue. Bartzelonan.

■ LEHIAKETAK

Euskadi mailako 4. argazki e diapositiba lehiaketa. Aretxabaleta

Kili Kili
Gosariak
Platos konbinatuak
Goizeko isetatik zabalik
Eibarkuntzea Tfnoa: 11 24 01

ANE MIREN
MODAK
ESTAZIÑO, 1 Tfnoa: 70 19 62

MARGOLA
TINDATEGIA
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
Bista Eder, 6 Tfnoa: 11 12 49 EIBAR

S.C.R. A
Goizeko 7,30eta
Pintxo eta tragu
Etor h
"KULTUR

SAN ANDRESAK JAI APROPOSAK

AGURRA


Ordu desente sartuta hemen daukazu irakurle, geure beste atrebentziatxo bat. Lau orrialdekin hasi giñan, urtia pasa ta gero gaztiondako beste lau ataratzen hasi giñan ta, orainguan, San Andres Jaixen gañian beste lau. Museko partida bat emoten jok honek!

Ahalegiñak eitxia merezi dabelakuan dihardugu eta ikasten gañera. Ia zer begittantzen jatsuzen honek orritxuok.Ez dakigu asmatuko dogun baiña San Andres Jaixen gora beherak ekarri dittugu bertsoz ta prosaz, bertan janari ta edanari, azokari, lehengo ta oiñgo jaixei ta bestelakoei lekua eginda.

Guretako San Andresak, Aratusteak kenduta, dira herriko jai sanuenak lagunartian ta herri-giroan pasatzen diralako.

Hori danori esanda ia ba danok ondo pasatzen dogun ta ezin dabenei, Lastimia!, gaixorik, biharra edo lana daukatelako, edo... datorren urterako esperantzia ta desiua gorde deixela espero dogu.

Lehen esaten zan moduan: "Irabazixa dauan lekuan, beti umore ona!". Jaixekin danok irabazten dogunez, eutsi horri eta ondo pasa.



90eko SAN ANDRES JAIAK. EGITARAUA

■ AZAROAK 25, IGANDEA:
. Musika Bandak eta Txistulariak kalejira eta kontzertua eskainikò dituzte.

■ AZAROAK 25ETIK ABENDUAREN 2RARTE:
EXFIBAR 90 XXI Filateli Erakusketa. "Arrate Filateli Elkarteak" antolatuta Udaleko Kultura Aretoan egongo da ikusgai.

■ AZAROAK 28, ASTEAZKENA:
. Goizeko 10,30etan Tolosako "Txontxongiloen VIII Nazioarteko Jaialdia"ren barruan Mexikoko Daniel Loezaren taldea.
. Arratsaldeko 4etan, Tolosako "Txontxongiloen VIII Nazioarteko Jaialdia"ren barruan Bretainia Handiko "Faulty Optic" taldea.
. Arratsaldeko 7etan Udalean "Ego Ibarra"ren ikurra irabazi duenari sari ematea.
. Arratsaldeko 7.30etan Udalean, Toribio Etxebarriaren "Viaje por el País de los Recuerdos" liburuaren aurkezpena: Hizlariak: Juan San Martin, Luis Castells.

■ AZAROAK 29 OSTEGUNA:
. Goizeko 10,30etan: Tolosako "Txontxogiloen VIII Nazioarteko Jaialdia"ren barruan Valenciako Bambalina Taldea.
. Arratsaldeko 4etan: Tolosako "Txontxongiloen VIII Nazioarteko Jaialdia"ren barruan Valenciako Bambalina taldea.

■ SAN ANDRES EGUNA, AZAROAK 30, OSTIRALA:
. Goizeko 9etatik aurrera:
- Epai-mahaia lanean hasiko da Nekazal Azoka barruan.
- Udaleko Batzar Aretoan: Irratizaleek irrati-tresnertzaren VI Erakusketa-demostrazioa egingo dute.
Goizeko 10etatik aurrera:
. Kalejira trikitilariekin
. Bertsolariak
Goizeko 11etan:
. San Andres Parrokian: Sostoa Korala eta Parrokiako Koroak meza nagusian kantatuko dute.
. Danok Bat fanfarria kaleetan zehar ibiliko da.
Eguerdiko 12,30etan:
. Kartel Lehiaketaren eta Nekazal Azokaren Kartel irabazleari sariak banatzea.
Arratsaldeko 5etan:
. Trikitilariak eta bertsolariak.
Gaueko 10etan:
. Berbena Untzagan ARITZA taldearen eskutik.

■ ABENDUAK 1, LARUNBATA
. Eguerdiko 12etan: Untzagan Plazan Kataluniako Folklore taldearen dantzaldia

. 12etatik 2etara: Dibujo Lehiaketa Untzaga Plazan.
■ ABENDUAK 2, IGANDEA
. Goizeko 10,30etan: Arraten, Aintzinako Abankargazko Armekin "San Andres" txapelketa jokatuko da.
. Eguerdiko 12etan: Amañako Kultura Aretoan Kataluniako Folklore taldearen dantzaldia.


EIBARko DENDARIEN ELKARTEA
JAI ZORIONTSUAK

MAIXA
TABERNA
Banderila eta kafe paregabeak
F. Calbetón Tfnoa.11 77 30

Modas
Arrizabalaga
"SAIHETSA"
Gazteak eta emakumeak jazten ditugu
San Andres, 3 Tfnoa. 11 30 41 EIBAR

Jan eta edan San Andresek esan?

San Andresko jaiak direla eta, urtero Eibarko txoko inguru eta bazter guztiak jendez bete-beteta izaten dira. Ospakizun honen jatorria erlijiosoa bada ere, gaur egun jai gastronomiko eta parranda izugarri bat egiteko aitzaki bat bihurtu da. Eibartarrok ez ditugu behar arrazoi haundirik jai bat antolatzeko, baina San Andresena gogorra izaten da benetan.



Jatetxeak guztiz erreserbaturik hilabete bat lehenago, txokoak toperaino beteta afaltzeko asmoz, eta gaueko giroa benetan sutsua izaten da. Askoren ustez, San Andresak urteko jairik haundienak izaten dira Eibarren.

■ Jatetxeak bete-bete

"San Andres eguna urteko onena izaten da guretzat" -dio eibartar jatetxe baten jabeak-" Egun osoa etengabe lanean jarduten gara goizetik baserritarrak etortzen direlako gosaltzera, eta gauean koadrilek jatetxe guztia betetzen dute. Lanean urkatzen ibili behar gara egun horretan, baina diru pila bat jasotzen dugu lan gogor horren truke".

Eibartar jatetxeen zuzendarien esanetan, San Andres egunean ez da menu berezi edo tipikorik eskatzen." Ez, horrekolarik ez dago. Jendeak, ondo eta ugari jatea nahi du, eta "extra" bat egiteko prest daude", dio beste jatetxe baten sukaldariak.

Erreserbak derrigorrezkoak izaten dira jatetxe bat topatzeko egun horretan, bai Eibarren bertan eta baita inguruko herrietan ere. "Guk, San Andres baino hilabete bat lehenago beteta izaten dugu guztia. Erreserbekin benetan argi ibili behar da, bestela leku gabe geratzeko arriskuan zaude", dio iatetxe baten jabeak. Nahiz eta estadistika bat egitea zaila izan, hamabost egun lehenago egiten dira San Andres egunerako erreserben gehiengoa. Itxuraz, jendeak badaki argi ibili behar dela mahairen bat topatzeko egun seinalatu honetan.

■ Txokoen egunik nagusiena

Jatetxe askorentzat egun probetxugarria baldin bada, txoko edo soziedadeentzat, urteko egunik nagusiena izaten da San Andres jaia. Bazkideek txokoaren bazter guztiak betetzen dituzte, lagunen artean afaldu eta kantatzeko asmoz. Koadrila asko biltzen dira txokoetan jaia ospatzeko asmoz, eta giroa benetan aparta suertatzen da.

"Guretzat, horrelako jai bat, hain herritar eta tradizionala den jai bat, txokoetan ospatu behar da", diote txoko baten bazkideek. "Jende askok jatetxetara jotzen du egun honetan, baina txokoetan sortzen den giroa ikaragarria izaten da. Hemen, guztiok gara lagunak, eta gau horretan primeran ibiltzen gara"

Txoko bakoitzak bere menua antolatuko du, nahiz eta tipikoa den afaririk ez topatu. Afaldu eta gero, eztarriak prest egongo dira kantuari ekiteko. Hemen ere, ez daude San Andres egunean tipikoki kantatzen diren doinuak, baina Hegoamerikako musikak izaten du tarterik haundiena, batez ere "Los Panchos" taldearen kantak.

■ Parranda eta gau-pasa

Afaldu eta gero, indar berrituekin, eibartarrek kalera jotzen dute, egundoko parranda sortuz. Tabernak bezeroz gainezka izaten dira, jende askok bere traguak kalean edan behar dituelarik, barnean lekurik ez dagoelako. Jai nagusietako giroa usaintzen da gau horretan.

"Gau gogorra izaten da. Edozein zapatu gauan izaten den giro berbera dago, baina jende kopurua izugarria izaten da", diote tabernari batzuek. "Aparteko gauzarik ez da egiten, baina hainbeste jende biltzen denez, parranda ikaragarria sortzen da".

Gazteek gau-pasa egiten dute, goizalderarte kalean egonez. "Bai, gu primeran ibiltzen gara San Andresen", diote gazte batzuek. "Jai guztia egun berean ospatzen denez, parranda osoa gau batean konzentratu behar da.

San Andresak

1) Eta Kitto-ko leihotik doa
gaur nere bertso jarduna,
gogoratuz ba datorrela
laster San Andres eguna.
Gure herrian alaitasunez
urtero ospatzen duguna,
baserrikoak ta kaletarrak
denok elkartzen gaituna.


2) Egunak motzak gauak luzeak
negu beltzaren sarreran,
hala ta guztiz jai girorako
prestatzen gara primeran.
Noizbehinka behintzat parranderoak
Eibartarrok nola geran,
aurrez hasita lagun artean
afaltzen dugu bezperan.

3) Beste zertxobait aipatuko dut
gogoratzekoa da ta,
Untzagan goizez izaten dugun
azoka eder aparta.
Baserritarrek ekarritako
jaki aukera galanta,
trikitrixa ta bertsolariak
ez da ezer ere falta.

4) Gehientasuenok eduki arren
une latz eta larriak,
egun ederrak ere ba daude
bizitzari ezarriak.
Goza dezagun herritarrok ta
ingurutik etorriak,
urtean zehar gutxi bait dira
hain egun zoragarriak.

Mari Asun Oteiza

■ Egun osoa etengabe lanean jarduten garā goizetik baserritarrak etortzen direlako gosaltzera, eta gauean koadrilek jatetxe guztia beteten dute. Lanean urkatzen ibili behar gara egun horretan, baina diru pila bat jasotzen dugu lan gogor horren truke".



ABONTZA
JATETXEA
S. Andres jaiak ondo pasa
Gogoratu: Igande gau ez itxita
Tfnoa. 11 22 79 EIBAR

TREBE
DEKORAZIOA
Opari eta Altzari auxiliarrak
Bista Eder, 4 Tfnoa. 11 01 51

S. Andres jai alaiak opa dizkizuegu
AKATS

Tzula
lora - denda

AZPIAU ONA
JATETXEA



Edith Beristain:

"Herriak feriak eskatzen ditu"

Berrizen bizi den 53 urteko emakume hau, Itziarren jaio bazen ere, "goitik behera irbartarra" kontsideratzen da. Berarekin eman zuen San Andreseko Azokak lehenengo pausua, "leher eginda nago, baina jarraituko dut, ipurdiz gora edo ipurdiz behera" Lemaz, feriaren antolaketa laga zuen arte, orain dela 2 urte. Lehenengo urtean Udalaren "nahi duzuena, baina zentimorik ez" gogoan badu ere, mementu gozo eta ahaztezinak dira nagusi bere oriotzapenetan: San Andres bezperako talua eta esnea, zumoaren taberna, Donostiko eskolaren gozokiak... Ez du, bestalde, berriro bueltatzeko gogorik galdu: "libratzen naizenean nire lanetik igual bueltatuko naiz; harremanak baditut".

"Hasiera baten talde bat elkartu ginen, guztiak beti kezkatuak ibili garenik sozialki. Orduko garaian inork ez zuen aipatzen baina kezka bat geneukan: ekologia. Eta oso kontzientziatuta geunden sagastien amaitzearekin, pinuaren gaiarekin etabar. Eta ekologiarekin loturik, gero alimentazioarena zen bigarren kezka. Argi zegoen zeozer egin behar zela hori agertzeko eta Gernikara joan ginen Zuriñe Sarasketa eta biok, han antolatu bait zen berriro azoka, urte batzutan galduta egon ondoren. Harremanak eduki genituen antolatzaileekin, jende zoragarria benetan. Nolako sagarrak ikusi genituenak! Baina han lehen ere ohitura bat zegoen eta Eibarkoari ekiterakoan pixka bat txoteo moduan hartu genuen, orduko Caja Ruraleko Zuzendariaren, Atutxa uste dut zela, bultzakadarekin".

- Nola ibili zineten Eibarko azokaren antolakuntza lanetan?

"Ba responsable moduan juntatu ginen batzu. Pepi Intsausti, orain Donostian dagoen andereño eibartarra, Alfredo Elorza, Zuriñe,... askoren laguntza izan genuen, Baserriz baserri, kartak ere bidali, lan asko benetan. Baserritarrak ez zuten etortzea nahi eta jendea ez zela etorriko beldur ginen. Zarata ateratzeko etxapligoak botatzea erabaki genuen, bost mila anekdota daude. Azkenean gure asmoak bete ziren eta geneukan ideia, hau da, baserritarra kalera eroatea eta kultura bide batez, lortu genuen. Gero, urtez urte, aldaketak egon dira, kirola sartu da, bertsolariak...erraz ekartzen zen jendea."

- Zer diozu oraingo azokari buruz?

"Feriak garrantzi handia hartu du, jendeak ondo ikusten bait du. Orduko zorra handiak eta faborez egindakoak, Beorlegi gogoratzen dut, orain Udaletxeko eta Eusko Jaurlaritzako laguntzari paso eman diote.

Bestaldetik, organizazioa oso ondo dago. Dagoen jendea, Marian esate baterako, kezka handiko neska da eta, bai, ondo pasatzen dut. Gainera beste gauza bat dago: gaur ekologiaren kezka badagoela, ingurugiroa hor dago, artisautza. Bertako fruta eta berdurari ematen zaie garrantzia, bitamina gehiago daukatelako, egunekoak direnez etabar. Bertakoa askoz lehenago heltzen da eta jendea horrekin ohartu eta orain onartzen du".

- Nola doan ikusita eta etorkizunari begira, arriskurik ikusten? Zer aldatuko zenuke?

"Pena ematen duena monotonia da eta hori beti gertatzen da, nahiz eta errudunik ez egon. Orduko objetiboak igual aldatu dira... Ikusten da muntaia hobea dela, jende gahiago dagoela barruan eta herriak feriak eskatzen ditu.

Lan honetan imaginazioa handia behar da. Gauzak ez dira errazak, baina anonimatoan jende interesantea dago. Gaur egun baserrian ere modernismoa gorakadan dago eta arazoak ezberdinak dira. Gogoratzen dut orduan nola esneen problemarekin enteratu ginen, konferentziak eskeiniz, Frantziako jendea ekarriz, Euskal Gobernua eta baserritarren arteko enfrentamenduak izan ziren ganaduen gaixotasunak esnea galeraztea bait zekarren. Hor falta da, igual ez da izango komenigarria baina, zeozer gehiago igual kultura aldetikan; tresneri zaharren erakusketa, adibidez, baserrian izkutatuak egoten direlako. Gure zaharren ohituraz ohartzea interesantea deritzot. Liburuak ere badaude, gordetzekoak.

Baliteke egun horretan guztia egitea larregi izatea eta feriren bitartez egin beharrean beste egun aproposagoak aurkitzea, hori bai".

San Andres buruan ta ibili munduan

Gauza guztiak bezala, jaiak eta hauek ospatzeko moduak aldatuz doaz. Izan ere, sarritan gazteek ez dugu ulertzen, edo ezin dugu ulertu (denbora edo garai horretan bizi izan ez garelako, hain zuzen) gure nagusiek dibertitzeko zuten modua. Adibidez, gaur egun ezinezkoa suertatzen zaio edozein gazteri bere gurasoek zapatu arratsalde osoa herriko plazan dantzan ematen zutela ulertzea, eta gainera sarritan duro bat gastatu gabe. Bizitza bera bezala, bizitza dastatzeko moduak ere aldatuz doaz. Horrela, guretzat oso garrantzitsua den gauza edo iharduera bat gure zaharrentzat ez dauka inolako inportantziarik, eta alderantziz, jakina. Gure herriko patroia den San Andres jaien ospakizuna dela eta, bi eibartarren eritziak jaso nahi izan ditugu San Andresen inguruko suplementu edo osagarri honetan. Eta eritzi hauek irakurri ondoren ikusi ahal izango duzue, bai gazte bai nagusi orik, eritzi bakoitza punta batetan dagoela, baina biak, bai Roberto Bergarak bai Jose Xareagak hain harrera onez eskeini dizkigutenak guztiz errespetagarriak direla. Bestela, konproba itzazue.



Roberto Bergara:

"Jaiak antolatzerakoan imaginazioa falta da"

"Lehen San Andres jaiek bere gustoa izaten zuten. Lehen tanborradia San Andresetan izaten zen; orain berbena txiki bat jartzen dute jarri behar dutelako, jendeak eskatzen duelako, gero txaranga bat eta hurrengo eguna, San Andres eguna, izaten da fuertea Barazkien Azokarekin. Barazkiak eta holako gauzak egotea ondo dago, bain ez da hori bakarrik. Hortxe zentratzen da dena, eta nire ustez ez da nahikoa. Beharrezkoa ikusten dut festa giroa, anbientea sortzea.

Neretzako Eibarko programak beti pobreak izaten dira. Imaginazioa falta da, dudarik gabe. Los Panchos eta horrelakoak etortzea ondo dago, noski, baina hau Udaletxeak hilabetero egin behar duen zerbait da, obligazio bat dauka herriarekiko. Eibarko jai egitaraua beste herrietakoekin konparatzen badugu ikus daiteke beste herrietakoak askoz klonpletuagoak direla: gauza gehiago dago eta gainera herri partizipazioa ere handiagoa da.

Guk uste dugu Eibar herri handia dela, edo behintzat mentalitate hori dago gure artean. Eibarrek 30.000 bat biztanle izanik, herri txikia da eta denak ezagutzen gara hemen. Beraz, nire ustez San Andres jaiak askoz herrikoiagoak izan beharko lirateke. San Andresetan ez da anbienterik egoten.

Herriak festak izan behar ditu, eskubidea dauka festak edukitzeko, ezin daiteke dena lana eta lana izan. Festa ere merezi du herri batek, eta imaginazioa falta da. Kuadrilak ere potentziatu egin beharko lirateke. Nire ustez nortasunik ez duten festak dira. Festak beti Udalexeak antolatzen ditu, baina beharrezkoa da herri partizipazioa".



Jose Careaga

"Jai inportantienak orain ospatzen dira"

"Nik gogoratzen dotanez, 1950. urtearen inguruan hasi zen jai erdi bat eitxen. Tanborradia ospatzen hasi ziranak Kerizpe soziedadekuak emon zetsen indarra. Halan be, nik uste dot jairik inportantienak orain hasi dirala eitxen Azokiarekin, honek jaiki haunixa emoten detse San Andresei. Gero San Andres bizperian eitxen dan afari hori inportantia da, mahai baten inguruan aldartzia gauza politxa izaten da. Hamen ta leku gustietan inportantiena jai bizperia izeten da; batek esan zestan moduan, "jubilaziñuak be es dauka gauza onik, egunero jai izatea, edarrena ta politxena egunero jai bizperia izatia da".

San Juanetako programan beti ipintzen da "fiestas patronales", baina egixa esanda Eibarko Patroia San Andres da ta San Juanetakua bihar bada jai tradizionala da. Nere ustez, ez jakue emon San Andresei bere inportantzia; ondiok be San Juanei inportantzia gehiago emoten jakue, bihar bada sasoia hobia dalako. Oiñ, ostera, badihardue inportantzia emoten San Andresei, baina sasoia, eguraldixa ez da egokixa izaten jaixa eitxeko. Barazkien azoka gauza ikusgarrixa da, ondo montauta egoten da, ta gaiñera jendea pozik ta gustora joaten da urtero Euskal Herriko produktuak ikustera.

Nik uste dot tanborradiana galdu dala eguraldixagatik, bueno azkenengo urtietan ezik, ze bastante anormal gabiz hemen eguraldixakin, baiña eurixa zala ta, horregaitxik aldatuko eben San Juanetara. Baiña tanborradia, egixa esanda, donostiarren jai bat da. Donostixan bere fundamentua dauka tanborradiak, harek gogoratzen ditxu frantsesak zelan egon ziren sartuta Donostia, ta gero zelan inglesak sartu ziren. Oiñ, hori herrixetan ta kopixa bat besterik ez da ta nik uste dot ez dala jakitzen zergaittik eitxen dan tanborradia, ez da sakontzen gaixa. Koloria emoten dotsa tanborradiak jaixari baiña hortxe gelditzen da nire ustez.

Gaur egunian San Andres elizan gauzak oso ondo eitxen dira. Koroa dala eta... gaiñera Elizia bera edarra daukagu, ondo zainduta, eta hori danon artian ondo gorde bihar dogu."

AGUIÑASPI
JATETXEA·RESTAURANTE
Jangela erreserbatuak ditugu
Urkizu, 22 Tfnoa. 12 15 50

KLAXON
Diska eta Opari gaiak
ONDO PASA
Errebal,19 EIBAR

SAGAR-BITZA
Edaritegia
Urkizu, 12 Tfnoa. 12 04 52

STRADA KARROZERIAK, S.A.L.
Otaola, 22
Tfnoa. (943) 11 70 26
EIBAR
Eulogio Estarta
Tfnoa. (943) 74 07 12 - 16

MAVI-TRANS
• 15etik 55 plazara bitarteko autobusak
• Bodak, bidaiak...
Tfnoa. 11 36 30 EIBAR

BORDA
Mariskoak
Sukaldaritza
BORDA-2
Ardotegia
Janari prestatuak
Kontserbak
ETXEZ-ETXEKO ZERBITZUA
Sostoa, 9 Tfnoa. 70 16 47 Ind. Ojanguren, 1 Tfnoa: 11 88 82

Santu eta jaiaren nondik-norakoak

Eibarko patroia San Andres dela argi eta garbi dago. Hala ere tradizioa eta sasoia dela eta, Eibarko jaiak San Juanengatik dira ezagunak Eibartik kanpo. Benetan interesgarria iruditu zaigu Eibarko patroiari buruz zehozer gehiago jakitea eta ezagutzea, bere inguruan desinformazio kutsu bat dagoela iruditu bait zaigu. Eta gure jakin mina asetzeko nahian, eta zuei, irakurleoi, San Andresi buruzko informazioa eskeintzeko bi pertsonengana jo dugu. Alde batetik, San Andres Elizako parrokoa den Jesus San Miguel San Andres Santua, parrokia eta Eibarko herriaren arteko erlazioa eta zenbait datu historiko eta anekdotikoei buruz mintzatu zaigu. Eta bestaldetik Ramón Sarasua eibartar musikoak San Andres jaien hasierako ospakizunei eta hauen antokatzaileei buruz hitzegin digu.

Jesus San Miguel-ek azaldu digun moduan, Ebanjelioan Kristorekin hitzegiten duen lehenengo Apostolua Andres da, eta horregatik greziarrek "lehen deitua" esaten omen zioten.

San Miguel-ek esandakoaren arabera, eta **Pedro Zelaiak** "Eibar" izeneko monografia historiokoan azaltzen duenaren arabera, Elizek balio izan zuten Euskal Herrian guztiz banaturik eta bereizturik bizi zen jendea batzeko, eta Elizen inguruan sortu ziren hain zuzen Gipuzkoako herriak. Eibar ere Elizaren inguruan sortu zen. Gaur egun denok ezagutzen dugun San Andres Eliza hasieran San Andres de Eibar izeneko aurre-Eliza bat besterik ez zen izan. Orduko herria eta Elizaren arteko erlazio estu hau momentu hartan gure hiriak zuen izenean isladatzen da: San Andres de Eibar. Gainera, udalaren eskudoan San Andresen figura zen nagusi. San Andres Eliza Eibarko herriaren fundazio aurrekoa da, fundazioa 1.346 urtean izan zelarik. Baiztapen hau frogatzeko esan daiteke Gregorio de Mugica historiagileak zera diola: 1.267 urtean Alfonso el Sabio erregeak Juan Lopez de Gamboa izendatu zuela San Andres Elizako patrono bezala. Hala ere, guk ezagutzen dugun Elizak (konstruzio berriak) lau mende besterik ez ditu.

Eta edozein gairen inguruan gertatzen den bezala, San Andresen inguruan ere sortu dira esanez edo anekdotak. Adibidez, ohizkoa da elgoibatarrek eibartarroi esatea guk ohostu edo lapurtu egin geniela San Andres, eta hau belaunaldiz-belaunaldi pasa den zerbait da. Kasu honetan horrela erantzuten du eibartarrak: "Ez, zeuek saldu egin dizue eibartarrak emon deutsuen urdai-azpikuagaitik".


Tomas Garbizu konpositoreak San Andres Elizari himno bat idatzi zion, eta hau Azaroaren 30-ean abesten da, letra Miguel Lasa parrokoarena delarik. Horrela dio letrak: Ospatu zagun Andres donea/ Ospatu zagun benetan./ Lagun deiola gure erriari/ premi eta bearretan./ Izan dedilla gure zaindari/ Gizaldi ta gizaldietan/ Gero betiko bere ondoan/ Izateko zeru goian./ Iru urtetan ibili ondoren/ Jesusekin bat lanean/ Ebangelioa zabaldutzea/ Eratu zaio Akain./ Antxen bizia Kristoren alde/ Egeasen aginpean/ Kementsu ematen ikusten degu/ Gurutze gogor batean.

Ramon Sarasua: 1948. urtean hasi ginen tanborradia eitxen

Ramon Sarasua eibartar musikoak gogoratzen duenez, "gauza bat izan da Elizan egin den ospakizuna ta bestea kalekua. Ni umea nintzenean San Andres eguna solidarixuen jaixakin (ELA-STV) ospatzen zan. Lehen STV ta PNV alkarrekin zeuazen nahiz ta bat politikua ta bestia sindikalisia izan. Orduan San Andres egunian joaten giñan Batzokitxik oiñez Isasi bururaiño ezpatadantza ta txistulariekin. Eskola Armirixa parian komentu ikusgarrixa euan, ta han mezia entzun eitxen zan. San Andres Eibarko patroia zan, ta "solidaridad de trabajadores vascos"-ekoa be. Gerria urten ebanian San Andres izeneko batalloi bat euan, solidarixuena zana".

Ramon Sarasuak gogoratzen duenez, lehen San Andres egunian biharra eitxen zan 1948an, gerra ostian, hasi ziren tanborradia ospatzen: "gure soziedadia, Ego-Gain, Kerizpe soziedadekin batera tanborradia eiñ genuen lehenengoz. Gero honi izen handixa emon zetsana Alperrak soziedadia izan zan. Hau 60. hamarkadan izan zan.Tanborradia urtetzen eban ta gero senar-emaztiak ta nobixuak Astelena Frontoian afari bat eitxen zeben berbena ta guzti. Hortik dator San Andresetan afarixak eitxeko ohitxuria. Hortik aparte errematia Azokia izan da, orain dela urte gitxi ospatzen dan Barazkixen Azokia".





MAHOIAK
LANERAKO JANZKIA
Lan babesgailuak
Eneko Carral Giogana
Barakaldo, 13
Tfnoa. 12 03 75 — 20600 - EIBAR
Lohikartzekoak
Petoak
Jakak
Kazadorak
Prakak
Alkondarak
Txabusinak
Anorakak
Xiezko eropak
Eskaularruak
Botak
E.A.

ROJO
Auto-konponketak eta pintura
Bidebarrieta, 52 Tfnoa. 12 00 09

AZTELU
ZURE OPARI DENDA
Erropa paregabea
Legarre behea, 5 — Telef: 11 81 59

trinmer
SATELITE BIDEZKO TA ANTENA KOLEKTIBOAK
RADIOZALETASUNA
MANTENIMENDUA
Jazinto Olabe, 1 — Tfnoa: 11 05 14 — FAXA: 70 04 71 — EIBAR

Rosana
Ileapaindegia
Urkizu, 7 - behea — Tel: 12 06 24

MUEBLES
VICTOR
Urki Behea, 23 — Tfnoa. 70 09 39
EIBAR

LITERATURA

ero zaitudalako



bizkarrean eramango dugu. Zurea, jadanik, pisuaz okerturik egongo da. Gizakien batasun osoa lortzen dugunean, egun horretan, ibilaldi luze-luze bat egingo dugu, zu zuzendari zaitugula. Hemendik hona eta handik hara alaitasuna eta berdintasuna zabalduko ditugu. Denon lana izanik, ez du inork mexpresatuko, ezta deuseztuko ere.

Baina bai, nire alaitasunak oso aurrera naramala uste dut. Utopia hau gauzatzen dugun bitartean, borrokan jarraitu behar dugu. Gero eta gehiago altzatuko ditugu besoak zerurantz, gero eta gorago pentsamendu guztien gainetik, diskriminazio guztien gainetik, politika era guztien gainetik. Zoritxarrez, orain arriskuan zaude; ez zaude inun salbu. Ikusiko duzu nola piskana-piskana lurtar guztiak elkartzen garen eta ez duzu inongo beldurrik jasan beharko. Zu gogorra zara eta lanean jarraituko duzu, batzutan gizaki bat edo besteren eginkizunetan, baina... beti aurrera!

Eta hemendik behetik gauza gaiztoak ikusten dira. Batzuk beste batzuren gainean eseririk, batzuk erdi hilik hoien azpian... baina polita (edo tristegarria) da ikustea, besoak altsaturik dituzten ia guztiak ia azpiko guztiak direla.

Nahiz eta zerua beltzturik egon, eta ikuskizuna ez izan oso alaia, gure borroka aurrera eramango dugu. Gero eta gehiago izango dira gure pake oihuaren partaide, ahots bakar bat eginez munduko pakearen alde.

Eta ni, ere pake uso desiratua, egunero espero zaitudalako... zure zai naukazu oraindik.

LIBURU BILDUMA BERRIA

u bilduma berria estreinatuko du Elkar
k irakurtzeko edo egindako liburuez
a, Joyce Barhouse, Edgar Allan Poe
izango dira lehenengoak

a botere erakargarri bat gordetzen
t." da.
k
r Denok elkarturik indar sail eta
s apur-ezin bat osatuko dugu.
, Orduan gure ordua helduko da.
n Denon lana izango da arazo konponketa hori, eta zama hori denon




Izenburua: Haur besoetakoa
Egilea: Jon Mirande
Argitaletxea: Erein
Orrialdeak: 108

Parisen jaiotako idazlea dugu nobela honen egile. Bere gurasoak Zuberotarrak izan arren, inoiz ez zioten semeri euskaraz hitz egin eta bere kabuz ikasi zuen euskara hogei urte zituelarik. Euskal prosan bide berriak urratzen ihardun arren, ez da bere lana oraintsura arte bere mailan baloratu. Honen adibide dugu gaurko liburu hau. "Haur besoetakoa" 1957 - 59an idatzia izan zen, baina 1970era arte ez zen argitaratua izan. Miranderen erlijio, politika, ea... pentsakerak zirela eta hegoaldeko euskaldun gehienengandik baztertua izan zen, eta honek irakurlegoaren murriztea ekarri zion.

"Haur besoetakoa" liburu honek, bera eta Theresak (neskatxa) soilik, osotutako mundu bat sortzen saiatzen da, inguruko guztia ahaztu eta baztertuz. Hau dela eta, neskamea eta Isabelarenganako (emaztegi ohia) gorrotoa biziki erakusten du, askotan berarenganako iguin nazkagarri bat sentituz. Geldi eta baketsu hasten den lizunkerietatik kanpoko amodio hau, bukaera zurrunbilotsu bat edukitzera heltzen da, beraien arteko harreman hori ezinezkoa egiten bait zaie gizarte honetan.

Liburu honetako euskera, ez da guretzat, batere erraza, Miranderen zuberotartasuna maiz ageri delako, bere puristegiarekin batera. Ez ditu erdal hitzik erabiltzen (hau da, erderatik datozen hitzak), baztertu egiten ditu eta euskal hitz garbiago eta zailago bat aukeratuaz. Oso ongi idatzia dagoela esan behar da eta hiztegi oso aberats batez hornitua.

Liburu honek izan dituen kritikak gogorrak izan dira, liburuak etaratako polemika gogorra izan zelarik hasiera batean. Pazientziaz irakurri behar den liburua dela esango genuke, bere hiztegi eta baita gaia ere berezi samarrak dira eta.



Klaxon
gustoa baduzu...

Oraingoan Oscar Andikoetxea Bilbaorekin hitz egin dugu. Mutil honek 23 urtekin diska denda bat zabaldu du merkatu plaza inguruan.

Bere negozio propioa eduki baino lehen taberna batean egin zuen lan baina, berak dioenez, "Tabernan lana egitea ez zait gustatzen". Horregatik bere negozio propioa zabaltzea pentsatu zuen. Etxeko eta bankuko laguntza bati esker lokala traspasuan hartu zuen.

"Hasierak oso larriak izan ziren. Beldurtuta negoen, ez nekien ezer negozio bati buruz eta hainbeste diru gastatu eta eskatu ondoren, beti beldurrez zaude negozioa martxan jarri arte".

Urte bat eta erdi pasa ondoren ikuspegiak askoz ere hobeagoak dira. Negozioa aurrera dijoa. Egunero 6 edo 7 diska saltzen ditu eta taberna batzuk bezero fijo bezala daude. Askotan Oscar bera joaten da tabernetara azken nobedadeak eskeintzera.

Edozein tipotako diskak saltzen ditu, nahiz eta musika klasikako diska gutxi eduki. Inportaziko diska gutxi ekartzen ditu Londresen kontaktuak eduki arren diskak erosteko.

Bazar txikia

Baina, nahiz eta diska denda bat izan, baita ere jantziak, boltsak, eskuz eginiko zapatak, belarritakoak etab... saltzen ditu. Konkretuji Maroko eta Indonesiatik ekarritako jantzi eta konplementuak.

"Orain dela hilabete t' erdi joan nintzela Marokora eta orain berriro noa. Asko gustazten zaizkit Marokoko jantzi eta konplementuak, hitz baten, Hippy gauzak. Honetaz aparte, baita ere asko gustazten zait Maroko bidaitzea.

Nahiz eta musika denda bat eduki, ez du musika aparailurik saltzen. "Dendan nahiago dut niri gustatzen zaizkidan produktuak saltzea eta konkretuki musika aparailuak ez naute liluratzen, horregatik ez ditut saltzen". Eibarri begira, bere denda negozio ona dela dio. "Denda gauza asko falta dira ekartzeko, bai diskak eta bai jantziak. Gauza hauek diru asko behar dute eta horretarako, denbora eta pazientzia behar da eta nola ez, diru asko. Baina espero dut jendearen erantzun on bat izatea".

Etorkizunera begira, ahal baldin bada beste herri batzuetan jantzi dendak sabalduko nituzke konkretuki Marokotik ekarritako gauzekin, jantzi denda bakarrik, ez diska dendarik. Horrela da bere iragana.

Bukatzeko bere gogoko diska batez galdetu diogu eta "Gary Mooren asken diska" izan da Oscarren erantzuna.

FIRIN - FARAN

tza- 1990.eko Abenduaren 21ean izango
hau da. Bidalketak Murruxiko Mendizale
Elkartera egin behar dira. Partaideak
eka. Euskal Herriko argazkizale guztiak
du direlarik. Gaia Mendia eta natura
nak arlo guztietan izango da. Koloredun
lira. diapositibak 5 x 5 zmtako, markot-
aij- xoetan sartuta eta argazkiak 13 x 18
eak zmtako, kartulinetan. Lan bakoitza-
uko ren datuak: Norberaren datu pertso-
nalak (helbidea, herria, telefonoa...
lana egindako tokia eta bere lema.
Lanak originalak eta inon sarituak
izan beharko dira. Sarituak diren
eta lanak antolatzaileen esku geldituko
tan, dira. Diapositibak, ordea ez. Epea Abenduak 10ean amaitzen da. Sari banaketa Abenduaren 21ean egingo da. Eta erakusketa Abenduaren 21etik 25era Udaletxeko erakustokian. Sariak 20.000 pta eta trofeoa lehenengo argazkiari eta lehenengo diapositibari berdin. Bigarren argazki eta diapositibari, bakoitzari 10.000 ptako saria. Herriko argazki hoberenari sari berezia emango zaiolarik.

BIDAIAK

Extremadurara joan zaitezke. Abenduaren 6tik 9ra. La Granja, Jarandilla, Yusteko Monastegia, Cáceres, Elvás (Portugal), Mérida, Guadalupeko Minastegia, Trujillo eta Plasensia bisitatuz. 14.500 pta ordaindu behar dira. Autobusa, hotela, afaria eta gosaria, eta eskursioak bertan sartzen dira.
Marruecos-era. Abenduaren 26tik Urtarrilaren 6ra. Marrakech, Asni, Essaouira, Fez, Chechauen, Ceuta etab... ikusiz. 20.900 kostatzen da.
Bai Extremadura edo Marruecos-era joateko Club Marco Polora joan behar zarete. Bilboko Plaza Berrian dagoena. Edo bestela telefono honetara deitu dezakezue: 4169016 - 17.

RRATE
tatik zabalik
xarmanantak
hadi
RALERA"

Zagora Hizkuntzen liburudenda
C/ Arragüeta, 7 Tfnoa. 12 72 21
E i b a r

ORIOTARRA
Taberna - Jatetxea
Giro Jatorra
Eguneko menua
F. Calbeton. Tel: 11 70 24

argazkilaria ANABEL
T. ETXEBARRIA, 2
TELEF. 11 18 29
EIBAR

Gorputza hobeto sentitzea lortzen da kirolarekin

Ramon Arizaga edo kirolarenganako pasioa

Eibarren, baditugu kirolari apartak, eta hauetako bat, Ramón Arizaga da. 30 urtetako gazte honek, mantenimenduan lan egiten du. Mutil honen berezitasuna, kirolenganako pasioa da.



G. Zenbat kirol praktikatzen dituzu?

E. Denetarik gustatzen zait. Mendian asko ibiltzen naiz, txirrindularitza ere. Gero, kañoiak jetsi, parapentea, eskalada, eskia, korrika egiten dut, eta igerilekuan ere asko ibiltzen naiz.

G. Nola tartekatzen duzu lana eta kirola?

E. Lanetik irtetzen naizenean korrika egitera joaten naiz edota rokodromora. Astebukaeran mendira joaten naiz, baita bizikletan ibili ere. Parapentean ere aritzen naiz.

G. Azken bolada honetan, zeintzuk dira egiten dituzun kirolak?

E. Denak, hori da nire desastrea. Azken hilabete hauetan, parapentea gehiago egiten dut, oraintxe ikasi berria naizelako. Hala ere, ez ditut beste kirolak alde batera uzten.

G. Nondik dator zure zaletasuna?

E. Zaletasuna, txikitatik datorkit, bai gurasoekin eta bai anaiarekin praktikatzen. Beti gustatu izan zait, eta horregatik hainbeste kirol egitera heldu naiz. Gaztetandik mendiak igotzea ikasi dut.

G. Zeintzuk dira zure bizioak?

E. Bizioak, kirol guzti hauek, ez dira nahikoak? Ditudan bizio hauek ez dira txarrak, baina bai garestiak.

G. Zein da Kirol hauetatik zuretzat gustokoena?

E. Bueno, ez daukat kirol berezirik; orain agian, parapentea niretzat berria bait da. Baina denak gustatzen zaizkit eta aukeratzeko orduan buruhauste asko edukitzen dut.

L. Zer egiten duzu forman egoteko?

R. Egunero entrenatzea. Egun guztietan, rokodromora, mendira edo igerilekura joaten naiz. Entrenatzen ez badut denbora askotan, berriz hasterakoan gorputzak, asko notatzen du.

Mendi arloan

G. Zein mendik erakartzen du gehien?

E. Niretzat hemen, Gipuzkoan, Txindoki oso egokia eta polita da igotzeko. Nafarroa aldean, Hiru Erregeen Maila oso erakargarria da.

G. Euskaditik kanpo ibiltzen al zara?

E. Bai, Pirineo eta Alpeetan ibili naiz. Mendi altu, berezi eta erakargarriak dira horiek.

G. Eibarko mendiek ez dute zure adiera erakartzen?

E. Bai, baina hemengo mendietan, mendibizikletaz trabesiak egiten ditut. Oso egokiak dira mendi hauek Mountain-bike-ean, kirol hau oso gogorra bait da.

G. Non eskalatzen duzu?

E. Eibarren daukagun leku bakarra, rokodromoa da; oso ondo dago, nahiz eta batzutan zaila izan. Hemendik kanpo Atxartera joaten naiz. Baina orain arazo asko daude hango kanterekin paretak apurtzen ari bait dira.

Parapentea kirol berria

G. Parapente eskola batetik pasa al zara?

E. Bai. Altsasun ikasia naiz, eta benetan kirol suhargarria da. Eskolatik pasatzea, oso garrantzitsua da, derrigorrezkoa.

G. Non praktikatzen duzu parapentea?

E. Nik parapentea Altsasun egiten dut, hala ere beste leku pila bat daude. Kirol honen gakoa, zera da, haizearen menpean gaudela. Honegatik askotan, ezin dugu salto egin. Salto egiten badugu arazo asko eduki dezakegu, bai salto egiterako orduan, airean gauden bitartean eta bai lurreratzean, kriston habiadura eduki bait dezakegu.

Trabesiak eskien gainean

G. Hasieran, eskia aipatu duzu. Zer eratako eskia egiten duzu, alpinoa edo fondokoa?

E. Biak egiten ditut. Hasieran, fondoko eskia egiten nuen. Era honetako eskia, oso gogorra da, baina oso polita baita ere. Eibartar askok praktikatzen du eski mota hau. Orain, alpinoa ikasten ari naiz. Nahiko erraza da ikasteko, baina trabesiak egiteko, nibel handia eduki behar duzu.

Eibartarrak eta kirola

G. Zure ustez, Eibarko jendea kirolaria da?

E. Nire ustez, jendea, orain mugitzen hasi da. Jende nagusia ere, asko kontzientziatu da tema honekin, eta polikiroldegian asko aritzen dira.

Jende gaztearen kasuan, berdin gertatzen da. Kirol gehiago egiten du; betiko kirolaz gain, hala nola, futbola, eskubaloia etab, kirol berriak, harrera oso ona eduki dute.

Jende asko mugitu arren azken denboraldi honetan, ez dut neska asko ikusi.

Polkiroldegi handi bat daukagu, non egunero entrenatu dezakegun, rokodromoan eskalatzeko, igerilekua ere badaukagu hainbat kiroletan aritu gaitezke; beraz jendea animatzea, beharrezkoa da, gorputza hobeto sentitzea lortzen bait dugu kirolarekin.

G. Kirola, zuk diozun bezala, garestia da. Nolako prezioak dituzte erabiltzen dituzun materialak?

E. Oso, oso garestiak. Adibidez eskaladako materiala, oso garestia da, sokak, zapatila bereziak, budrier-a etab euki behar bait dituzu. Parapentea ere 300.000 pesetara hel daiteke. Mountain-bike on batek ere 100.000 baino gehiago balio du.

Beraz ikusten dugu kirola beharrezkoa dela, eta batzuk horretaz aprobetxatzen dira, kriston prezioak jarriz. Hala ere gutxinaka materiala eros dezagun eta denok, kirola egitera.

... eta kitto!-? Gomendaturik

Matraka
Nesken iraultza



Hilabete honetan aurkezten dizuegun diska hau, orainartekoetatik erraz bareiz daiteke, lau emakumek egindakoa bait da. Beraien izena, MATRAKA da, eta Iruñarrak dira.


Talde hau, BELLADONA zenaren ondorio bat da, partaide gehienak irauten bait dute oraindik bertan; baina, noski, izenaren aldaketarekin bat, berrikuntzak agertu dira.

Aipatu behar da, kaleratu duten "elepe" honetako hamar abestitik hiru, letrak euskaraz daudela. Adib. LURRAREN GATZA bertan, emakumearen gaurko egoera azaltzen da, gizonaren menpetik atera behar dela esanez, bera bait da lurraren gatza dira. Beste bi abesti euskaldunak ONDO NAGO eta IPUIN BERRI BAT dira. Ondorengo abesti guztiak gaztelaniaz idatzirik daude eta Euskal herriko taldeek normalean erabiltzen dituzten gaiak darabiltzate: gizarte kapitalista honen aurkako letrak, estatuaren aurkakoak, laburtuz, gaur egungo egoera sozio-politikoari kritika.


Beraien musikari dagokionez, eta hau da garrantzitsuena, esan, lehengo influentzia "punkiarekin" jarraitzen dutela, baina musika landua daukatelarik (kitarra soloekin, etab). Honekin esan nahi da, neska hauei mundu guztiari bezala, ez zaizkiela urteak alperrik pasatzen eta musikaren munduan sartu dituzten orduak zerbait egiteko sartu dituztela.

Beraz, esan dazakegu OIHUKA-k argitaratu duen diska hau martxaz beterik dagoela eta Josebe, Jenis, Puri eta Marieta-k jotzen duten musika alde batekoei edo bestekoei gustatu izan zaiela.

DENBORA PASA



EIBARKO FANZINEAK





Porrot: 37. zka jadanik esku artean

Porrotekoek azken zenbaki honetan aldaketa nabariak eskeintzen dizkigute. Hobekuntza aldetik, inprimaketaren kalitatea da aipatzekoa, maketazioa ordenadorez egina bait dago, orain arte gertatu ez den bezala. Porrock-eko alea, enkuadernazio berezi batez egina dago, bestalde.

Kalean dagoen zenbakiaren gaiari begira, hauek aipatuko genituzke: Ondarrurako bidaia aprobetxatuz egin diren bi elkarrizketa, gaztetxeari buruzkoa bata eta "Radixu" irratiarena bestea; Elgoibarko gaztetxeari zuzenduriko zortzi horriko dosierra, bertan lau urtetako erresistentziaren ezaugarriak kontatzen digutelarik; eta albiste laburretan, Berlinen gertaturiko zauritu eta atxilotuaren berri ematen da, Bergarako tabernetan Persiako golkorako ehiztariei zuzenduriko premiazko deialdiarena ere, Zazpiki Irratiaren berragerpena ere aipatzen da eta, bukatzeko, Eibarko Gazte taldeen "agobio polizialaren aurka"ko komunikatua.

ZER IKUSI HURA IKASI



FITXA TEKNIKA

Egilea: Miguel Angel Martínez
Kamera: Pentxa Super-A
Objetiboa: 50 mmkoa
Pelikula: f-22 VALCA
Errebelatzailea: Kodak etxeko D-76a (10,5 minutu)
Papera: Recorapid 3. gradua
Errebelatzaile positiboa: Neutol WA

Gauzak ez dira diruditen bezalakoak. Argazkilaritzak imajina errealak, fantastikoak, abstraktoak sortzeko aukera ematen digu, gure inguruan dauden gauzez baliatuz.
Hori lortzeko argazki egileak teknika pilo bat darabil, sortzeko jokoa egiten uzten djotenak, hori bait da eta ez beste: jokoa.
Dena dela teknika horiek ez dute zertan alda arazi hasierako imajina. Gehienetan gainera, teknika horiek erabiltzerakoan errealitatea indartzea nahi izaten da. Honekin batera doan argazkia horrela egin da. Sokaren formak mantenitu eta azpimarratzeko "estaltze" bat egin beharra egon da, bestela, argazkia hori gabe, gauza ilun eta zehaztasun gabeko bat izango bait litzateke.

Erredakzioaren OHARRA:
Aurreko aleanargazki bat zegoen atal honen barruan. Orrialdea ondo gera zedin horizontalean jarri beharrean bertikalean jarri genuen. Egileak, nola ez, protestatu egin du eta horregatik horra hor berriz argazki hura baina benetan zen bezala argitara emanda.

Urtiaren amaieran kalian izango da liburua

Azken 100 urtietako 1.000 gatxizen batu dittu Antton Narbaizak

Eibarko gatxizenak ezagutzia nahi dabenak laster eukiko dau dendetan Antxon Narbaizak batu dittuan gatxizen eibartarren liburua. Unibertsitatian irakasle dogun eibartar honek oso lan politxa eiñ dau Eibarren izan diran gatxizenen gañian. Gatxizenak gaur egun lengo modukuak estittugu ta Antxonek diñonez beste bizitzeko modu bat erakusten doskue lenaoko gatxizen zarrek. Beste lan batzuk be eiñdakua dogu eibartar idazle, itzultzaille edo traduktore ta maixua dogun Antxon, baiña azkenengo lan honetan eibartarren izakeran garrantzia euki daben batak bestia ezautzeko modua zelakua zan agertzen da liburu honen bidez.



Antxon Narbaizak egindako Eibarko azken 100 urtietako gatxizenen liburua, Abendu edo Dizienbriaren 28xan presentauko da herrixan.

• Lengo gatxizenak testigantza bat dia, oiñ daozenak ostera izen propixo edo pertsonaje famosuetatik ataratakuak dira, baiña ezato gatxizen ondarerik edo patrimonialak esaten jakuesenetakorik. Gaurko gatxizenak personalk litzakez baiña ez familiarrak, lengoen moduan.

Zelan hasi ziñan idazten edo eskribitzen?

"Ba... Euskal Filologiako ikasketak egin nittuan Gasteizen, ta oiñ dala hamar urte edo hasi nitzan Eibarko Unibersidadian klasiak emoten. Gero ba... aurretik be ibilli izan naiz: Suizan egon nitzan urte bete ta... Frantzian be bai ta... Alemanian be pixkat ibillitakua naiz. Dana dala orduantxe hasi nitzan; bueno, hamen eh... lan profesionalaz kanpo ba... hoixe: itzulpenak eitten dittut, kreaziño lanak be eiñak dakaraz ta... holantxeik. Oiñ dala urte batzuk-Gero-deittu izan zanian be idatzi izan neban, aurretik-Mensajero-deittutakuan. Orduan gauzak eittia zailtxuaua zan politiko egoeria zalata. Zeruko Argian-be idazten jardun nitzan: Eibarko gaiak idazten nittuan ta gero ba... Andu Lertxundikin hasi nitzan haur literaturia idazten. Ipurbeltz-en be jardun nitzan ta gero ba... beste bide batetik jo neban. Ipuiñen batzuk be idatzi izan dittut ta sarittua be izan naiz. - Pirenaica-n be idatzi neban, ze ni beti izan naiz mendizalia.

Gero itzulpengintzan edo traduziñuan be hasi nitzan gehixao, ezta? Batez be frantsesa eta alemana itzuli izan dittut. Behiñ itzuli edo traduzidu neban neri asko gustatzen jatan idazle bat: Augusto Monterroso. Guatemaltekua da bera baiña Mexikon bizi da ta bere "-La oveja negra y otras fábulas-" liburua itzuli neban euskarara: Hau ondiokan Ereiñ argitaletxian dao noiz argira urtetzeko zaiñian.

Eusko Jaurlaritzako beka bati esker "-Manuelesko-" dakat itzulitta. Eiñ doten azkenengo lana Eibarko gatxizenen gaiñian eiñ dot, baiña ondiokan argitarau barik dao".

Zelan pentsau zenduan gatxizenen liburua eittia?

"Hori ondiñok argitarau barik dao... ta Udalak argitarauko dau. Nik pentsatzen neban oso gai interesantia zala. Ze ni pixkat hasi nitzan ba, holako... auzuan edo... pertsona bat hiltzen zanian edo izango ba... hari zelan esaten dotsie ta -harek dia "perderrenekuak"- ta hori izango litzake beste gizarte bat, gizarte edo soziedade preindustrial bateko izakeria edo. Ze gizartia edo soziedadia gaur egunian atomizau eiñ da ta... gaur egunian eztou alkar ezautzen. Len herrixan gatxizena zan persona bat identifikatzeko, ta kanpotik zetozenek ez zeben ezer ezautzen. Orduan, gatzizena zan pixkat bai herrixan edo bai persona bat ezautzeko, baiña herritxik kanpora ez zeben urtetzen gatxizenek, herriko orbitan gelditzen ziran beti".

Erredakziño taldiaren oharra:

Antxonek ondo esaten daben moduan Aiuntamientu edo Udaletxian komisiño bat sortu ta prestau da Eibarko eta eibartarron lengo bizi moduaren goraberak, memorixa historikua, batu ta publikatzeko. Komisiño horren izena EGO IBARRA da ta bertan kolore pentsakera ta arlo diferenteetako jentia dago. Hori dala ta herriko edozeñek eukiko balu lengo gauzaren bat jasota etxian: bertsoak, gerrako kontakizunak, kantuak, semoiak, ipuinak edo bestelako edozer, eskertuko genduke horren barrixa emotia. Horretarako Aiuntamientuko Euskara Departamentura jo leike. Bardin bateron batek eskribidu barik euki arren zeozer kontatzia nahi izango baleu, prest gaoz grabaziñuak eitxeko.

Zuk batu dozuzenak zer dira Eibarkuak hara kanpokuak be bai?

"Bai, bai, Eibarkuak, jakina; ez, ez, ez, ez... bestelakorik ez dot nik batu. Oiñ eh... badira batzuk kanpotik etorrittakuak ta Eibarren bizi izaten geldittutakuenak be.

Gero gatxizenetan be sailkapena edo klasifikaziño bat eitten da ta... hor batzuk: fisikuari lotutakuak (Txirikiña ta palua) edo ironikuak (Andres arro' arrua izango zalako) ta beste era batekuak be egongo litzakez".

• Ipuiñen batzuk be idatzi izan dittut ta sarittua be izan naiz.
• Gaur egunian estou alkar ezautzen. Len herrixan gatxizena zan persona bat identifikatzeko.
• Oiñ Eibarko euskerian antologixa bat eittekotan gabiz. Eibarko euskeraz idatzi zeben idazlien antologixa.

Ze komentauko zenduke Eibarko gatxizenen ganian?

"Ba... 'Bada baltzen kokua`; hori Toribiok be badakar ta zera izango litzateke: latiñez esaten dana 'carpe diem`, ezta? Horren esanguria: oiñ bizi daigun momentua ta gero gero-kuak. Hori zan bada baltzan kokuan modura dana jaten juaten zana, ezta?

Gero badia oso politxak be: 'Sebatian Txalupetaz`ta 'Karabinua`ta... horrek gauzok euren pasadizuak eukitzen dabez. Nik pasadizo aldetik eztot asko batu. Pasadizuak bai Toribio Etxeberrian lanetan ta baitta Juanito San Martin-en "-Eztenkadak-" ta "-Zirikadak-" liburuetan agertzen dira.

Nik eiñ doten bilduma edo jasoketa klasifikaziñuan ehun urte inguruko gatxizenak be agertuko dira. Lengo gatxizenak testigantza bat dia, oiñ daozenak ostera izen propixo edo pertsonaje famosuetatik ataratakuak dira, baiña eztao gatxizen ondarerik edo patrimonialak esaten jakuesenetakorik. Gaurko gatxizenak personalak litzakez baiña ez familiarrak, lengoen moduan".

Ze inbestigaziño metodo erabili dozu?

"Nik lelengo eiñ dot prospekziño bat eiñ ta zerrenda edo listado bat osatu nik neuk nere kaxkabarretxean. Zerrenda edo hori listiorri nik ezagupidia dakaran personen bittartez eiñ dot. Ta hori eiñ ta gero kalez-kale ta estrategikoki goikaldekuei ta behekaldekuei entregau dotset. Soziedadietan be ibili izan naiz datu gehixao billatzeko. 1.000 gatxizen inguru batu dittut ta... pixkat geldittu eiñ naiz ze... lan haundixa da horrek orden alfabetikuan jartzia ta, esanahika klasifikau...

Oiñ Eibarko euskerian antologixa bat eittekotan gabiz. Udaletxia babesletzat hartuta batzorde edo komisiño bat badao hiltzen dana ta Eibarko euskeraz idatzi zeben idazlien antologixa bat idaztekotan gaoz. Hor sartuko gendukez: Mogel, Juan San Martin, Romualdo Galdos ta... beste batzuk be bai.

Antologixa horretan testigantzazko testuak diran guztixak Eibarko euskeran juango litzakea. Eibarko euskeria oso ona izan da baiña gaur egun, leku guztixetan daon modura, hamen be txarto eitten da".

Careaga
Bitxi eta
Erloju-denda
Arte-lanak eta grabatuak
Bidebarrieta, 10 Tfnoa. 11 80 45

MUÑOA
ZURE AUTOARENDAKO ORDEZKO PIEZAK
BIDEBARRIETA 14, 16.
TFNOA. 11 13 17 11 62 28

Larramendi
Etxerako elektratresnak
Estaziño, 6 Tfnoa. 11 30 11

TXURRUKA
OPTIKOAK ZEURE ZERBITZURA
Bidebarrieta, 62 Tfnoa. 12 70 21

Jeronimo
Drogeria
Jostailu eta opari-artikuluak
Calbeton, 11 Tfnoa. 11 10 14

Trenak bai baina tokirik ez



Guztiok dakigu jubilatuek gaur egunean trena ordaindu beharrik ez dutela. Halere modu askotako eritziak ageri dira honen aurrean. Eritzi horiek ezagutzeko Eibarko Eusko Trenbideetako zuzendari den Antonio Cimas, Ipuruako erresidentziako zuzendari den Pablo Arana eta tren hauetan oso ibilera handia duen Idoia ikasle usurbildarrarekin izan gara. Arazoa nahiko problematikoa dela ikusteko aukera ezin garbiagoa dugu bai pertsona hauek eman diguten eritzi eta kaleko jendeak eman dituen erantzunak kontutan hartu ezkero.



Antonio Cimas-ek dioenez: "niri pertsonalki neurri bat iruditzen zait, eskubide bat eman zaie eta eskubide hori praktikara eramateko ahalmen ezin diskutigarria dute. Halere gizartea asko aldatu da gaur egun eta nik uste dut gaur egun aldaketa horiek guztiz kontutan izan beharrekoak direla; gauzak berriz begiratu behar dira. Gaur egunean langabezia handia dago eta bestalde badira jubilatu asko beste edozein familiak baino diru gehiago dutenak eguneroko bizitza egiteko, adibidez: 70.000 - 80.000 peztako pentsioa duten jubilatuak badira, familia askok diru hori baino gutxiagorekin eta jende gehiagori janaria emanez bizi behar duen bitartean.

Nire ikuspegia soldata interprofesionalean muga bat jartzea litzateke eta kopuru hori pasatzen duenak ordaindu beharra izatea eta kopuru horretara heltzen ez denari dohaitasuna ematea.

Eibarko tren geltokian adibidez sortu izan dira arazoak daukagun zirkulazio gehiagoren eskastasunagatik. Tren gehiago izango bagenitu beharbada ez genuke horrelako arazorik izango. Badago tren bat: Bide-expres deitua hain zuzen, zeinetan arazo nahiko gogorrak izan diren. Aurtengoan adibidez eta udagaraian ordu biak eta hogei ta lau minututan beste tren bat ipini zen horrela arazorik egon ez zedin baina jubilatu guztiek beste tren hori hartu beharrean Bide-expresa hartzen zuten hobeto joaten zela eta. Hori zela-ta jende asko, egiazko beharrean zena, toki gabe gelditzen zen, Bide-expresean joateko txartelak aurretik hartu beharra dago, eta.

Nire ustetan egoerak berdina izaten jarraituko du baldin eta jendeak gertatzen ari denaren kontzientziarik hartzen ez badu. Garraio arduradun nagusiak ikerketa serio bat egin beharko luke hemen. Arazo politikoa ere izan genezake hau, ez bait zen pentsatzen gaur egunean dabiltzan bezainbeste jubilatu ibiliko zirenik trenetan. Baina noski, arazo honen konponketak eskubide baten deuseztea ekarri dezake eta horrek ere badakartza bere problemak.

Bestalde, trenbide hauek erabiltzen dituen eta ikaslea den Idoia usurbildarraren ustetan jubilatuek zerbait ordaindu beharko lukete: "nik hori askotan hitzegin izan dut jendearekin zeren batzutan, gehiegizkoa izaten da! Jubilatu askok egunean zehar ez dute zer eginik eta txartela hartu ta trenian ibiltzen dira pasaiatzen ta... jende asko dago lanean dabilena eta ikasleak ere bai! Pertsona zaharrak direla eta tokia utzi behar diezu. Arazo hau konpontzeko bide bat pentsio txikiak dituzten jubilatuek laguntzak jasotzea eta besteek ordaintzea litzateke".

Ipuruako erresidentziako zuzendaria den Pablo Aranarentzat gauzak ez dira aurrerago azaldu direnentzat bezelakoak: "ondo dago hori, ondo deritzot. Gainera guretzat komenigarria da. Asko dira pentsio txikiak kobratzen dituztenak eta guk hori ondo ikusten dugu. Trena erabiltzen duen gehiengoak beharragatik egiten du. -Por kapritxo- erabiltzea ere izan leike, nik neuk ez dut horrelakorik egin".

Jubilatuek trena dohan daukatela eta, zer diozu?



Tomas Osa Larraza. 75 urte. Jubilatua.

"Zeozer kobratzia be!!! Ba... batzuk eztabe nahi ta... beste batzuk pentsatzen dabe nere moduan: zeozer kobratzia".



Santiago Bedallo Arakama. 69 urte. Jubilatua.

"Nik pentsatzen dot jubilauak zeozer pagau eiñ biharko leukela, askorik ez baiña zeozer bai. Trenbidiek be euren gastuak dakez ta... batzuek, jubilau askok, aprobetxau edo...



Esther. 32 urte. Garbiketa lanak.

Behin adin batetara heldu ondoren komenigarria iruditzen zait zerbait dohan izatea. Bizitza guztia lanean eta ordainketak egiten egon ondoren pixkat hobetoago bizi beharko litzateke.



Kontxi. 64 urte. Etxeko andria.

"Hara!! Jubiladia naiz ni!! Badakat trena baiña sekula eztot erabilli. Erabat formal erabili ezkero, gehiegikerixarik eiñ barikan, ondo ikustendot."



Josefina. 60 urte. Etxeko andria.

Bestiok juan da: -eztao lekurik, eztao billeterik ze etortzen da beteta ta... dana jubilaua!! Nik eztakat ezebe jubilauen kontra baiña pentsatzen dot larreikua dala.



Iñaki. 34 urte. Ojatateroa.

"Ondo, lenao ordainduta eukingo dabelako ta merezi debelako. Beti herrixan barik pasiuan juan daittezen ortik zihar. Bestela, aspertuta eta aislatuta egoten dira.



Michel eta Manuel. 14 urte. Ikasleak.

"Ondo. Horrela ez dute oinez joan beharrik, zaharrak bait dira. Hobe tranbian joatea kalean jaustea baino".



Pedro. 29 urte. Enplegu teknikoa.

Ordaindu ahal izateko bezainbeste diru beharko lukete pentsio egoki bat izanez gero. Pentsio egokiak ordaindu beharko lirateke gero bidaiak ordaindu ahal izateko".



Juan Diego Martinez. 28 urte. Administratiboa.

"Niri oso ondo iruditzen zait eta justua gainera. Bizitza guztia lanean eman ondoren izan dezatela mentajaren bat ibili ahal izateko: garraio mota guztiek izan beharko lukete dohainik eta zinea, teatroa eta bestelakoak ere bai".



Kristina Castro. 28 urte. Frutategiko langilea.

"Laguntza bat iruditzen zait eurentzako. Horrela etxetik irtetzeko aukera gehiago dute. Bestela euren bizimodua gogorra da, horrela integratuta daude.

AGENDA Azaroaren 24tik - Abenduaren 28ra

■ **SOSTOA ABESBATZAREN EMANALDIAK**
11.30an: San Andres Eguneko Mesa Nagusian. Parrokian. Bertako Abesbatzarekin batera.
12.14an: Gabonetako Programa. ZARAUTZ ABESBATZArekin.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**
Deportiboko argazkilaritza taldeak burututako "ARGAZKI RALLYA"ren erakusketa.

■ **UDAL KULTURA BATZORDEAk antolaturik.**
24an: "Lo que hay que decir" Telebista programaren grabaketa. Polikiroldegian. Arrats. 8,30etan.
25an: Kalejira eta Kontzertua. Txistulari eta Musika Banda.

■ **VIII TOLOSAKO NAZIOARTEKO TXOTXONGILLO IHARDUNALDIAK direla eta:**
— 11.28an: Mexicoko DANIEL LOEZA DANTZA TALDEA. Goizeko 10,30etan.
— Britania Handiko. FAULTY OPTIC Taldea. Arrats. 4retan.
— 11.29an: Valenciako BAMBALINA taldea. Goizeko 10,30etan.
"" "" "" Arrats. 4retan.
— Emanaldiak Unibertsitate Laboralean izango dira.

■ **SAN ANDRES EGUNA**
Goizeko 9retatik aurrera: Nekazal Azokaren Epaimahaiaren lana hasiko da.
10etatik aurrera: Trikitilariekin kalejira. Bertso Emanaldia.
12,30etan: Herri kirolak. Desafixua. BIURRI/IMANOL eta BEGLIETIO /CORTINA.
13.30etan: Nekazal Azoka eta Kartel Lehiaketaren irabazleei Sari Banketa.
17,00etan: Trikitilari eta bertsolarien emanaldia.
22,00etan: ARITZA Taldearekin Berbena.
12.1an: Untzaga Plazan: Cataluniako Folklore taldea. Eguardiko 12etan.
DIBUJO LEHIAKETA. Untzagan. 12etatik, 14,00etara.
12.2an: Tiro Txapelketa. (Aurrekargo Armak) SAN ANDRES SARI NAGUSIA. Arraten. Goizeko 10, 30etan.
Cataluniako Folklore Taldea. Amañako Kultur Gelan. Eguardiko 12etan.
Abenduaren 10tik - 25ra.: ERAKUSKETA "INDALEZIO OJANGUREN ARGAZKI LEHIAKETA". Argazkiak. Udal Kultura Aretoan.

■ **EIBARKO IRRATIZALEEN ELKARTEA**
San Andres egunean, Azaroak 30. Irratizaleen elkarteak Udal Kultura Aretoan HF, UHF, eta Mhz 27 Irrati Tresneritzen erabilera erakutsiko dute. Baita ere Erakusketa egindo dutelarik.

■ **ITZULPENGINTZA HITZALDIAK:** Udal Euskara Batzordeak antolatuak.
4an: Lourdes Auzmendi. gaia: "ALBISTERIAREN ITZULPENA".
11an: Jesús Zabaleta. Gaia: "DISCURSOAREN MESUA". "ANALISIA".
17an: Juan Garcia Garmendia. Gaia: "ITZULPEN LITERARIOA. KREAZIO LITERARIOA.
KREAZIO LITERARIOA".
Hitzaldia hauek Lan Kide Aurrezkian. (Juan Gisasola Kalean). Arratsaldeko 8retan izango dira.

■ **LIBURU AURKEZPENAK:**
11.28an: Toribio Etxeberriaren "VIAJE POR EL PAIS DE LOS RECUERDOS". Egun berean "EGO IBARRA BATZORDEAREN IKURRA SORTZEKO LEHIAKETA"ren irabazlearen izena emango da. Aurkezpenean Juan San Martin (Arartekoa) eta Luis Castells (historigilea hizlari bezala harturo dute parte.
EGO IBARRA UDAL BATZORDEAK argitara eman duen liburuak. Egile biak eibartarrak direlarik.
12.26an: Jose Manuel UNANUEren. "EIBAR, IDAZLEAK, IDAZLANAK".
12.28an: Antxon NARBAIZAren. "EIBARKO GATXIZENAK".
Aurkezpenak: Udal Kultura Aretoan. Arratsaldeko 7,30etan.

■ **KIROLA**
PEÑA PELOTAZALEak antolatua eta Abenduaren amaierararte GABONETAKO PILOTA TXAPELKETArako herri mailako partiduak. Orbea Frontoian. Eibarko Haur eta gazteentzat.
MENDI IBILALDIAK
K. Deportiboko Mendizale Taldeak antolatuta
15an: Areta - Bilbo
ANTZERKIAL Udal Kultura Sailak prestturik
20an: DUODENO Taldeak. "Pasen mueran" lana antzeztuko du. Unibertsitate Laboralean. Arratsaldeko 8,30etan.

■ **UDAL KONTSUMATZAILEEN BULEGOA**
• 4an: HITZALDIA. "OSASUNA ETA NUTRIZIOA".
• Bi astetako KONTSUMO TAILERRAK burutuko dira. Eibarko 2 ikastetxek parte hartuko dutelarik.

■ **EXFIBAR 90 XXI ESTATU MAILAKO FILATELI ERAKUSKETA**
Arrate Filateli Elkarteak, Azaroaren 25tik-Abenduaren 2rarte. Udaletxeko Kultura Aretoan, XXI. Erakusketa aurkezten du. Bertan Eibar Futbol Taldearen 50. urteurrena ospatzen deladela eta futbolari zuzenduriko atal berezi bat egongo delarik.

NORK - ZER

Koordinatzailea:
Fernando Muniozguren.
Erredakzio taldea:
Ana Aizpuru
Idoia Irazola.
Fernando Muniozguren.
Amaia Muruamendiaraz.
Oskar Rekalde.
Arrate Zuloaga.
Aitor Gorosabel.
Jose Luis Gorostegi.
Letizia Gomez
Argazkilaria:
Jose Valderrey.
Literatura:
Ane Sarasketa
Maketazioa:
Jose Valderrey.
Komikia / Marrazkia:
Ander Gisasola.
Inprimaketa:
Gertu